

# ek!

eta kitto!  
euskara elkarte

2022ko apirilak 29 · 1226. zenbakia



## AGUAZILA BAINO POLIZIAGO



dica.

**URRATEGI**  
INTERIORISMO  
barne diseinua

Arragueta 27 20400 Eibar  
Arretxe 9 20730 Azpeitia

[www.urrategiinteriorismo.com](http://www.urrategiinteriorismo.com)



# Eibarko PROFESIO LIBERALAK



## ABOKATUAK

**CRISTINA BAZ LARRAÑAGA**  
Fermin Calbeton 4, 3 esk.  
Tel. 943 12 80 55  
www.cristinabaz.com  
cristinabaz@icagi.net

## EGUREN&ASOCIADOS

Urtzaile 1, 2  
Tel. 943 20 41 94  
Fax. 943 82 00 06  
egurenyasociados@gmail.com

## M<sup>a</sup> MERCEDES ARIÑO SANZ

Toribio Etxebarria 3, 1 ezk.  
Tel. 943 20 17 03  
Fax. 943 70 20 49  
m\_ari\_sanz@hotmail.com

## AHOLKULARITZAK

**GAURVE**  
Fermin Calbeton 13-15  
Tel. 943 20 24 61  
www.gaurve.es  
consultores@gaurve.es

## GESTILAN

Zezenbide 4  
Tel. 943 20 70 02  
www.gestilan.es  
gestilan@gestilan.es

## ETXE ADMINISTRAZIOAK

**CRISTINA BAZ LARRAÑAGA**  
Fermin Calbeton 4, 3 esk.  
Tel. 943 12 80 55  
www.cristinabaz.com  
cristinabaz@icagi.net

Hemen zure lekua  
Informazioa: 943 20 09 18 (...eta kitto!)

## MGEP

MANE EGIEN ERAGILEKIN  
KONPROMISOA GIZ ETXERA POLITIKAREN  
GISE MARIA ARZUMENDIARRITA S/2022

### Go! Mailako HEZIKETA ZIKLOAK 2022-2023

Eskaintza akademikoa	Itze irakien jardunaldia
Informazioa eta Bideratze Informatiboa	7/100
Gonak Informazioa, Software Informatiboa	7/100
Adierazte Teknikoak Berria	7/100
Heziketa Berriak: Praktikatzen Programak	7/100
Ikasitzaile Informatiboa	7/100

www.mane-egien.edu/antolatze/etiketa | www.pasa.lan@mane-egien.edu  
991 290 701 - 991 290 983

### GEROA EREIN



**B**erriro teknologikoak egin nahi, eta bukatutakoan, harbat aukera zuzentzen dila nentzen zuzenean ingeniarietza informazioa ikasi edo goi mailako zikloa egin. Neure buruarekin eztabaida dezente edukit ondoren, zikloarekin praktika informatikoa lortzea aukeratu nuen. Gaur argi daukat ikasten jarraitu nahi dudala, eta zikloa bukatu ondoren ingeniarietza informatikoa hasiko dut.

Wilabonakoa nait, eta inguruen informazioa paika bat gero eta aite zerketan egin ondoren, MGEPko lan egiteko modua gustatu zitzaizkidan, nire lan egiteko moduari buruz zuzenean iradokitzea, eta bertan matrikulatzea erabaki nuen.

Nire kasuan, zikloa zeharkatu nahi beharrez gaur, erabakitzen ere aldatu behar izan dut. Hain esanik, ezarritako eta ikasgai berriak izan eta ikasi ditut. Dena berriz izan da niretzat, bi urte hauetan.

Heziketa zikloa betetzeko, ETHAZI metodologia aktiboarekin lan egiten dugu, hau da, talde lanetan eronakak eginez funtzio profesionalek lantzen dituzte. Nola baloratuko zenake esperientzia?

Harbat eronka egin behar izan ditugu bi urte hauetan. ETHAZI metodologia sustatzea eskatu zaigu eronka hauetan, eta horrek lagundu lan egiteko ikasi ditugu. Nire iritzia, taldean lan egiteko taldeko kide guztio gehiago ikasten lagundu digu, eta, gainera, metodologiaren eraginarekin lagundu izaten.

**DUALA aukeratzeko erabakia emaz hartu zenuen?**

Iai, aukera ematen zidenera, irudaitan egon nintzen. COVIDa zela-eta ez nuen balere gogorik inonertu hartan lanetan hasiteko. Baina guretzat eta irakasleentzat ematen behar dugut ikasi honi buruz ikasi adierako. Ezin izan beharrik daukat aukera erabaki hobe izan dela DUALA, lana eta ikastetza partekatzea aukera ematen du, eta, gainera, denburratza ere lortu du.

DUALA Antzemenduz kuztulan egiten ari naz gaur egun ere, bertako informazio sistemaren zerbitzuko lantzailean. Elena Rodrigo da nire-taldea.

Beraz, harbat zeregin egin behar izaten ditut. Adibidez, ordenagailu berriak prestatu eta zehazkiak eguneratu, ikastetza gure aldetik sare arazoak konpondu edo gailu guztien arazoak ezabatu edo/eta hobekuntzak egin...

Autonomoa izaten ere ikasi dut. Lanak nire kabuz gauzartzen ditut, beste inoren laguntzarik gabe.

Eskolan ikastetza gai batzuek nire lana egiten lagundu dituzte, adibidez, hardware modua guztiz bat ezin da ordenagailuak desmuntatu, pieza identifikatu eta horien murrizketak egiteko zereginarekin.

**Eta orain, denbora bat pasa ondoren, DUALA gomendatuko zenake?**

Norik, daukat gabe, DUALA gomendatzen dut. Taldearekin elkarrekin du, beraz, eskola onak onak ondo agerituko, baina niretzat du, zikloa ikasten ditako.

Nik ikasi lan egiten dut. Monitorean taldean nabil funtzionari, beraz, bai, ezarritako moduko esperientzia da, edozein egin ditake niretzat bere buruan inonertu badi eta lana egiten badi.



Lander Labaka (Vilabona)

# Jarraitu gaitzazu!



Ohorezko B Mailan jokatzeko duen Eibar Rugby Taldeak 17-18 galdu zuen zapatu arratsaldean Uribealdearen aurka. Gaston Ibarbururen mutilak nagusi izan ziren partidua hasieran, baina atsedendititik bueltan bizkaitarrek markagailua irauli zuten, azken minutuetan puntu erabakigarriak lortuz. Partidua galdu arren, festa giroa bizi izan zen Unben eta amaieran talde eibartarrari hainbeste eman dion Jokin Garciak merezitako omenaldia jaso zuen.

Domekan Maiatzaren Lehena izango da, Langileen Nazioarteko Eguna, eta LAB sindikatuko Jon Kirru Iparragirrek egunaren inguruko gorabeheren berri eman digu.

@etakitto



etakitto.eus



**ARGITARATZAILA**  
...eta kitto! Euskara Elkarte

**HELBIDEA**  
Urkizu, 11 · 20600 Eibar

**TELEFONOAK**  
943 20 67 76 / 943 20 09 18  
603 598 285

**FAXA** 943 20 28 72  
**ASTEKARIAREN E-MAILAK**  
erredakzioa@etakitto.eus  
komunikabideak@etakitto.eus  
publizitatea@etakitto.eus

**ELKARTEAREN E-MAILAK**  
elkartea@etakitto.eus  
normalizazioa@etakitto.eus

**ERREDAKZIO-KONTSEILUA**  
Ana Aizpurua, Ekhi Belar, Jose Luis Gorostegi, Silbia Hernandez eta Yanire Sagredo

**ADMINISTRAZIOA**  
Marisol Uriarte

**KOORDINATZAILA**  
Ana Aizpurua

**ERREDAKZIO-BURUA**  
Silbia Hernandez

**DISEINUA**  
Maku Oruezabal

**MAKETAZIOA**  
...eta kitto! astekaria

**HIZKUNTZA ARDURA**  
Maider Aranberri

**PUBLIZITATEA**  
Belen Ulazia

**TELEFONOA**  
943 20 67 76

**AZALEKO ARGAZKIA**  
Silbia Hernandez

**BANAKETA-ARDURA**  
Idoia Labado

**TIRADA**  
8.150 ale

**INPRIMATEGIA**  
GERTU koop. (Oñati)

**COPYRIGHT-A**  
...eta kitto!

**LEGE-GORDAILUA**  
SS/430/92. ISSN: 1132 - 1679



("...eta kitto!" ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)

Eibarko Udalak eta  
Gipuzkoako Foru Aldundiak  
lagundutako aldizkaria



EIBARKO UDALA



Gipuzkoako Foru Aldundia

## Eskutitzak



### EHko Pentsiodunen Mugimenduaren salaketak

Apirilaren 25ean, astelehena, Hego Euskal Herriko lau hiriburuetan eta 80 herritan, astelehenetan egin ohi diren mobilizazioetan, gure salaketen berri eman dugu:

Bizitzaren kostuaren hazkunde zentzugabea, gero eta pentsiodun gehiagori modu negatiboagoan eragiten ari zaiona.

Gobernuek arazoari aurre egiteko hartutako neurriak ez dira nahikoak.

Gizarte-kotizazioen dirua erabiliz, enpleguko pentsio-planak bultzatzeko lege-proiektuak aurrera jarraitzen du Kongresuan, eta espero dugu Unidas Podemos, ERC, EHBildu, BNG, CUP, Compromis eta Más País alderdi politikoek aurkeztutako zuzenketek lege-proiektua behin betiko onartzea eragozte.

Gerrarekin edo gabe krisiarekin edo krisirik gabe gero eta aberatsago bihurtzen direnek bultzatutako errenta-ituna amu bat da beren etekin izugarriak ezkutatzeko eta soldata, pentsio eta zerbitzu publikoetan murrizketa berriak justifikatzeko.

Maiatzaren 1eko mobilizazio sindikalei ematen diegun babesaren berri emango dugu, eta Gasteizen maiatzaren 12an egingo den mobilizazioa deituko dugu.

**EHko Pentsiodunen Mugimendua**

## Astean esanak



Leopolisen 800 kazetari zeuden handik 25 kilometrora bonba batzuk jaurti zituztenez. Frontetik ehun kilometrora egonda, zuzeneko egitea kasko eta balen aurkako txalekoarekin jendeari iruzur egitea da. Buchara heldu arte, horko kazetari gehienek hildakorik ikusi gabe zeuden. Gerrara lehen aldiz doazenek euren istorioetako prezioak zapaltzen dituztelako, doan egiten dutelako lan eta euren lana ez dietelako baloratzen. Gaurko ogia biharko gosea bihurtuko da; azkenean lan egin ahal izateko ordaintzera helduko dira. Eta aske esan dezaket Eusko Jaurlaritzak subentzionatu egiten dituela gerra honetatik hurrengo urteetan euren irabaziaz biderkatu egingo dituzten hainbat arma-lantegi.

**GERVASIO SANCHEZ, kazetaria**

Aberatsen artean klase-kontzientzia askoz ere handiagoa da langileen artean ematen dena baino. Ez dugu eurei zertan kopiatu, euren klase-kontzientzia eksklusiboa eta baztertzailer delako, baina ez litzaiguke txarto etorriko erreferentziatzat hartzea, batez ere klase borroka oraindik ere indarrean dagoela jabe gaitzen. Inguratzen gaituen mantra neoliberalak indibidualismora bideratzen gaitu, soluzioa bakoitzaren eskuetan dagoela sinestarazteko. Baina, kontuz, `ahal duenak bere burua salba dezala` horren atzetik, bakarrik ordaindu dezakeena salba dadilaren ideia ezkututzen da.

**ISAAC ROSA, idazlea**

## Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

**OGI-TAKO** → Ogi zati handia. "Arrasaldeko eskolian ondoren, ogi-tako bat".

**OGI-TREMES** → Eralgi gabeko irinarekin egindako ogia, zahi eta guzti. Gehienetan arto irina eta irin zuria nahastean zituen. Ogi birrindun baltza. "Gerra ostian jaten genduan ha tremesia eta, artua eta... ha zan ona!"



Idurre Iriondo

### Farmaziak

<b>BARIXAKUA 29</b>
<b>EGUNEZ   Azkue</b> (T. Etxebarría, 4)
<b>ZAPATUA 30</b>
<b>EGUNEZ   Elortza</b> (J. Gisasola, 18)
<b>DOMEKA 1</b>
<b>EGUNEZ   Iraundegi</b> (Calbeton, 19)
<b>ASTELEHENA 2</b>
<b>EGUNEZ   Mendinueta</b> (Urkizu, 6)
<b>MARTITZENA 3</b>
<b>EGUNEZ   Barandela</b> (Z. Agirre, 4)
<b>EGUAZTENA 4</b>
<b>EGUNEZ   Elortza</b> (J. Gisasola, 18)
<b>EGUENA 5</b>
<b>EGUNEZ   Azkue</b> (T. Etxebarría, 4)
<b>BARIXAKUA 6</b>
<b>EGUNEZ   Castaño</b> (J. Etxeberría, 7)
<b>GAUEZ BETI</b> , 2022an, <b>Mendinueta</b> (Urkizu, 6)

### Telefono jakingarriak

SOS deiak	112
Pegora	010
Udaletxea	943 70 84 00
Portalea	943 70 84 39
Udaltzaingoa	943 20 15 25
Mankomunitatea	943 70 07 99
Debegesa	943 82 01 10
KIUB	943 20 38 43
Epaitegia	943 03 34 00
Iberdrola	900 17 11 71
Naturgas	902 12 34 56
DYA Larrialdiak	943 46 46 22
Gurutze Gorria	943 22 22 22
Eibar Ospitalea	943 03 29 00
Mendaro ospitala	943 03 28 00
Anbulategia	943 03 25 00
Torrekuia	943 03 26 50
Errepideak	902 11 20 88
Ertzaintza	943 53 17 00
Eusko Tren	944 33 33 33
Lurraldebus	900 30 03 40
Pesa	900 12 14 00
Taxiak	943 20 30 71 / 943 20 13 25
Andretxea	943 70 08 28
Alkohol. Anon.	629 14 18 74
Al-Anon / Alateen	650 26 59 63
Grupo Egun Bat (Jokozale	
Anonimo eta Familiak)	699 37 75 20

### Hildakoak

- **Eugenia Gonzalez Gonzalez**. 95 urte. 2022-04-18.
- **Araceli Calzada Ortega**. 95 urte. 2022-04-19.
- **Timoteo Berrueta Elizburu**. 96 urte. 2022-04-20.
- **Ana Maria Atxa Burrutxaga**. 85 urte. 2022-04-21.
- **Sofia Esteban Sanchez**. 91 urte. 2022-04-22.
- **Jose Luis Etxeberria Agorreta**. 69 urte. 2022-04-23.
- **Rafael Osoro Alberdi**. 89 urte. 2022-04-25.
- **Alexander Sola Urriaga**. 74 urte. 2022-04-25.

### Jaiotakoak

- **Kaiet Cuello Carrera**. 2022-04-14.
- **Romaisa Touimi**. 2022-04-19.
- **Nora El Moussaoui Tijarti**. 2022-04-21.
- **Miren Sousa Barruetabeña**. 2022-04-23.



## “Bekaduna” umorezko webseriea estreinatuko du UEU-k martitzenean

Udako Euskal Unibertsitatearen 50. Urteurrena ospatzeko asmoz, “Bekaduna” umorezko webseriea estreinatuko du maiatzaren 3an. Proiektu hau UEUk, BIRA produktzioak eta Hiru Damatxok egin dute elkarlanean eta Mikel Irazustak eta UEUko lantaldeak egin dituzte aktore lanak. Webseriea lau kapitulu osatzen dute eta asmoa bi astetik behin UEUren youtube kanalean kapitulu berri bat argitaratzea da. Ikus-entzunezko honen helburua urteurrena modu jostagarrian os-

patu, oraindik UEU ezagutzen ez duten publikora iritsi eta UEUko lantaldea eta bazkideak omentzea da. Idoia Torregarai UEUko komunikazio-arduradun eta proiektuaren koordinatzaileak egitasmo honek bere inguruan sortu duen ilusioa azpimarratu du: “UEUren izaera alai eta parte-hartzailea islatuko zuen zerbaitekin egin nahi genuen. Bekaduna UEUren komunitate osoari egin nahi diogun opari bat da eta guri bezainbat gustatzea espero dugu”.

## Udalak aho batez gaitzetsi du Saharako auzian Espainiako Gobernuak Maroko babestea

Eibarko Udalaren Bozeramaileen Batzardeak aho batez onartu du Saharako gatazkaren inguruko adierazpen instituzionala. Adierazpenak sei puntu ditu eta lehenengoan argi ikusten da Batzardearen iritzia: “Eibarko Udalak gaitzesten du Espainiako Gobernuak Marokoko Erresumari eman dion babesa Sahara autonomia gisa erreinu horretako kide izateko”. Onartutako adierazpenak jasotzen dituen puntu guztiak osorik irakur ditzazkeuz Udalaren webgunean.



**IKONOMI ALTERNATIBO JARDUNALDIA**

12:00 - 14:00  
El Milagro de Worgl  
Pelikula + Galderak/Preguntas

17:00 - 20:00  
Nekane Jurado (Maritxu)  
Hitzaldia: Los dones y los talentos  
Dahai eta talentuak

**APIRILAK 30 ABRIL**  
ERREKAL  
Cultural de Arrate Zuloaga

**Bizitza**

## Bestelako ekonomia ereduaren aldeko jardunaldiak antolatu dituzte biharko

Eibarko herritar talde batek osatzen duen Eguzki taldeak ekonomia alternatiboari buruzko jardunaldia antolatu du biharko, Arrate Kultur Elkartearen lokaletan. Hasteke, 12:00etatik 14:00etara Urs Egger zuzendariaren “El Milagro de Worgl” (Austria, 2018) pelikula emango dute eta, ondoren, horri buruzko galderak erantzuteko tartea egongo da. Film horretan, hain zuzen, beste ekonomia eredu bat po-

sible dela erakusten dute. Eta arratsaldean, 17:00etatik 20:00etara “Los dones y los talentos” izenburuko hitzaldia emango dute Nekane Juradok eta Maritxuk, hori ere Kultur. Jurado Ekonomia eta Enpresa Zientzietan lizentziatua da eta 25 urtetik gora eman ditu Eusko Jaurlaritzan, Ekonomia sailean lanean. Gainera, ikerlan eta ekonomiari buruzko artikulua ugariren gilega ere bada.



## Zaporeak erronkaren amaiera ekitaldia bihar Errebalen

Barixakuan aurkeztu zuten Zaporeak elkartearen erronka solidarioa, udaletxeko pleno aretoan antolatzaileek Jon Iraola alkatearekin batera egindako ekitaldian. Aurrekoetan bezala, Zaporeak elkartek Greziako errefuxiatuentzat janaria bilduko du aurten ere, gaur amaituko den kanpainan. Eibarren pardina dilista jasoko da, Ermuan eta Deban grano biribileko arroza, Elgoibarren garbantzu pedrosilla-

noa eta Mallabian eta Soraluzen hodi erako makarroia.

Kanpaina ixteko ekitaldia, berriz, bihar izango da Errebal Plazan: “Tuper solidarioa” izeneko ekimena eta hori girotzeko egitaraua antolatu dituzte, Errebal Plazan, eta Untzagan, berriz, rifak eta Zaporeak-eko arropak salduko dituzte. Goizean sukaldariak arroza Lumagorrirekin eta dilistak bakailaoarekin prestatzen arituko dira Errebal Plazan eta,

bitartean, hainbat jarduera egingo dira. Eguerdian, 12:15ean, Kaleetan Kantuz abesbatzak emanaldia eskainiko du; 13:00ean, Rafa Gorrotxategiren eskutik, txokolaterearen historian zeharreko ibilaldia eta txokolate ezberdinen dastaketa egingo dira (aforoa bete arte). 14:00etan, janaria banatzen hastearekin batera, gerraren inguruko antzezpena egingo dute. Juanma Canok espazioa dinamizatuko du eta Maite Lorenzok Pedro Carbonellen “Cartas para Alolisa en tiempos de guerra” poema errezitatuko du. Amaitzeko, 14:45ean Trio Medianoche abestuko du.

## Maiatzaren 9an hasiko da Udan Igeriketa programarako aurrematrikulazioa

Eibarko Kirol Patronatoak Uda 2022 igeriketa programa aurkeztu du. Programa hori 2019an eta aurreko urteetan jaiotakoentzat da. Ikastaroak honako datetan garatuko dira: ikastaro osoaren kasuan, ekainaren 27tik uztailaren 22ra; 1. hamabostaldiaren kasuan, ekainaren 27tik uztailaren 8ra; eta 2. hamabostaldian, uztailaren 11tik

22ra. Izena ematerakoan, lehentasuna izango dute ikastaro osorako apuntatzen direnek eta bazkideek direnek. Aurretiko izen-ematea maiatzaren 9tik 26ra arte egin daiteke: zuzenean Ipurua eta Orbea kiroldegietan edo, bestela, [www.eibarkirola.eus](http://www.eibarkirola.eus) bitartez. Maiatzaren 27an zozketa egingo da eta emaitzak argitaratuko dira.





Erosketa-ibilbidea kanpainako kartillan ziguilak ipini ahala, bezeroei erosketa-txartelak eman dizkiete opari gisa.

## Erosketen ibilbidea euskaraz primeran bete dute oraingoan

Orain arteko arrakastarekin animatuta, Erosketa-ibilbidea kanpaina egon da martxan apirillean, Eibarko Dendarien Elkartearen eskutik, ...eta kitto! Euskara Elkartearekin, Eibar Merkataritza Gune Irekiarekin eta Eibarko Udalarekin lankidetzan. Aurten, baina, berritasun batekin garatu dute: euskaraz aritu diren bezeroak saritu dituzte eta oso pozik daude jendearen erantzunarekin.

Oraingoan berritasun nagusia kanpaina “Euskeraz Primeran!” egitasmoarekin bat antolatu dutela izan da, jendea Eibarren eros-tera animatzeaz gain, bezeroek euskara erabiltzea ere sustatzeko. Horretarako, lehen hitza eta ahal zela elkarrizketa guztia euskaraz egiten zuten bezeroei pegatina jartzen zitzaientzen, eta horrek saria handitzen zuen: “Sei pegatinatik gora zituzten kartillek 60 euroko erosketa-txartela jasotzen zuten

**Erosketak egiterakoan euskaraz aritu direnak saritu dituzte eta jendeak oso ondo erantzun du**

(50 eurokoa izan beharrean) eta hamarretik hamar zituztenek, hau da denda guztietan beti euskaraz egiten zutenek, 70 euro”.

Arrakastatsua izan da kanpaina, datuen arabera. Dendari Elkarteko kideek esan dutenez, jendea kartilla entregatzera joaten zenean ere euskaraz egiten ahalegintzen zen eta, zentzu horretan, aldea igarri diote.

Hasieran kanpainaren iraupena bi astekoa, martxoaren 21etik apirilaren 3ra bitartekoa izatea zen asmoa, baina martxoaren 30ean kanpaina apirilaren 10era arte luzatzea erabaki zuten. Hala ere, apirilaren 8rako amaitu ziren 140 txartelak.

Arduradunek diotenez, “bonuen ordeztu txartelak izateak harrera ona izan du, bai bezeroaren aldetik, bai dendarien aldetik”. Eibarko Dendarien Elkarteko 126 dendek hartu dute parte kanpaina honetan eta kartillak 109 establezimendutan (%86tan) zigitatu dira.

Bestalde, kartillen batz besteko gastua 341,28 eurokoa izan da, Dendarien Elkartetik emandako datuen arabera; kartilla gastu baxuena 201,90 eurokoa izan da eta, altuena, 1.333,52 eurokoa. Bestalde, 50 euroko (3 pegatina) txartel bat eta 60 euroko (6,7 eta 8 pegatina) hiru txartel izan ezik, jaso diren beste guztiak 70 eurokoak (10 pegatina) izan dira. Kanpainari lotutako erosketa-bolumena, bestetik, 9.750 eurokoa izan da guztira.

**“Arropak, oinetakoak eta osagarriak” posterra**

Bestalde, aurreko asteetan herriko establezimenduetan banatutako “Arropak, oinetakoak eta osagarriak” posterra aste honetan euskaltegi, ikastetxe, liburutegi eta beste hainbat tokitan banatzen aritu dira.





Bi urte zain eman eta gero, jubilatutako kideak ere gauzak egiten hasteko irrikitan daude. SILBIA HERNANDEZ

## Kirola eta osasuna izango dira ardatza Nagusien Hamabostaldian

Programazioaren berri emateko agerraldian Jon Iraola alkateak, Idoya Sarasketa Gizarte Zerbitzuetako zinegotzi eta Adinekoen Batzordeko buruak eta Biztu Jubilatuen eta Pentsionisten Koordinakundearen presidentek, idazkariak eta jarduneko diruzainak hartu zuten parte.

“Kirola eta osasuna erretiroa hartu ondoren” goiburuari jarraituko dio Nagusien Hamabostaldia eta atzo bertan hasi zen, Udalbatza aretoak hartu zuen inaugurazio-ekitaldiarekin. Bertan, besteak beste, Ipurua, Urki, Beheko Tokia eta Untzagako etxeetako presidentek hartu zuten parte eta, gainera, Julian Gomez Gorputz Hezkuntzako lizentziadunak hitzaldia eman zuen. Untzagako gitarra-taldearen

emanaldiak eta piskolabisak itxi zuten ekitaldia.

Atzoko aurkezpen-jardunaldia eta gero, lehenengo jarduera astelehenean, maiatzaren 2an, izango da: Elgoibar eta Eibar artean ‘Luis Muguerza Memoriala’ izeneko ibilaldia egin eta gero, Azitaingo Oinarrizko Lanbide Heziketa Udal Institutuan piskolabisa eskainiko zaie parte-hartzaileei.

Maiatzaren 4an, berriz, bitzaitura osasungarriak izango ditu hizpide José María Vaquero medikuak, Untzaga jubilatutako etxean, 18:30ean.

Eta hurrengo egunean (maiatzaren 5ean) beste hitzaldi bat emango du Onorio Martínez Eibar Kirol Elkarteko medikuak: Adinekoen jarduera fisikoaz eta nutrizioaz ari-

Pandemia dela eta, azken bi urteotan bertan behera laga behar izan den Pertsona Nagusien Hamabostaldia itzuliko da aurten, aurreko asteko barixakuan egindako prentsaurrekoan aditzera eman zuten bezala. Ekimenaren XXVII. edizioa maiatzean zehar egingo da, ohiko ekitaldiekin: hitzaldiak, emanaldiak, txangoak, lehiaketak eta beste hainbat ospakizun antolatuta dituzte.

tuko da berbetan, Beheko Tokian, 18:30ean.

Maiatzaren 6rako Suancesera txangoa antolatu dute. Irteera 08:00etan izango da eta prezioa 27 eurokoa, lagun bakoitzeko.

Maiatzaren 9an txapelketa bi izango dira, bata igel-tokakoa eta bestea mahai-jokoena (tutea, mus eta briska). Biak Ipuruako etxean jokatuko dira, lehena 12:00etan eta bigarrena 17:00etan.

Maiatzaren 11n, Pili Arinek “Erretiroa eta sasoian jarraitzea” izenburuko hitzaldia emango du Ipuruako jubiletxean, 18:30ean.

### Bazkari batekin agurtuko dute Hamabostaldia

Eta, Hamabostaldia agurtzeko, maiatzaren 13an bazkari-omenaldia egingo da Untzaga Plaza hotelean, musika eta dantzaldiarekin. Aurretik, 12:30ean, meza egingo da, Eibarko lau jubilatutako etxeetako eta Biztuko hildakoen alde. Bazkarira joan nahi dutenek maiatzaren 4ra arte eman dezakete izena eta prezioa 28 eurokoa da.

# Inoiz baino “armaginago”

Gure izaera armaginak gero eta zalantza gehien sortzen zuenean, epai batek gure herriko tradizioari eustea erabaki du. “Eibar guziz armagina” bihurtu eta hemendik aurrera herriko udaltzainak pistolarekin izango ditugu kalean. Udala ahalegindu da beste bide batetik jotzen, baina azkenean epaiak sindikatuen alde egin du eta, “aguazil beharrea, poliziago bihurtu ditu” Eibarko 44 udaltzainak. Domeka honetatik aurrera arma zintzilik ikusiko ditugu kalean. Ea jendearengandik ez dituzten urruntzen. Guztion segurtasunaren alde ei delako hartutako neurria. Hiriburuetakoan antza hartuko dute gure udaltzainek.

**E**ibarko Udalak 1977an erabaki zuen herriko Udaltzaingoak suzko armarik ez erabiltzea. Ordutik, erabaki hori ez zen sekula ezbaian egon, 2018ra arte, hainbat udaltzain armen erabileraren alde mugitzen hasi ziren arte, segurtasun arazoak argudiatuta. Kexa horiek SVPE sindikatuak gidatu zituen, ondoren Ernek ere bat egiteko eskaera horrekin. SVPE-k ordezkariarik ez bazuen ere Eibarko Udalean, Espainiako Segurtasun Indarren legea oinarri hartuta, armak erabiltzeko eskubidea aldarrikatu eta Udalaren aurkako salaketa aurkeztu zuen Donostiako epaitegietan. Epaileak aintzat hartu zuen salaketa eta Udalari ohartarazi zion armak ukatzeko erabakia legean oinarrituta argudiatu behar zuela. Hala egin zuen De los Toyos Eibarko alkateak eta, epaitegiari igorritako txostenean, udalerririk azken hamarkadetan izandako delinkuentzia indizea aintzat hartuta, udaltzainei armak eramateko arrazoirik ez zegoela azaldu zion. Gainera, udal talde bakar batek ere ez zuen begi onez ikusten udaltzainen eskaera.



Epaileak, azalpenak entzun ostean, arrazoia eman zion udal gobernuari. SVPE sindikatuak EAEko Auzitegi Nagusira jo zuen gero, bere helegitea Espainiako Segurtasun Indarren legean oinarrituz. Eta 2019ko udaberrian epaimahaiak arrazoia eman zion udaltzainen taldeari, suzko armak erabiltzeko eskubidea aitortuz polizia guztiei. Ebazpenak zioen “egungo errealitate sozialak” zenbait kasutan ezinbesteko egiten zuela indarra eta suzko armak erabiltzea. Horren aurrean Udalak helegitea aurkeztu zuen Auzitegi Gorenaren aurrean eta honek,

handik urtebetera, iazko ekainean, helegitea atzera bota eta Eibarko udaltzainek pistola eraman behar zutela erabaki zuen, argudiatuz “indarraren erabilera eta suzko arma behar-beharrezkoak” direla jendearen segurtasunari eusteko. Hiru urteren ondoren, beraz, aipatutako auto horrek 2019ko epaia betetzera behartu zuen Eibarko Udala. Iazko urriaren 31rako izan behar ziren gure herriko udaltzainak pistolekin kalean, baina prozesua pixka bat luzatu da eta, azkenean, domekatik aurrera ikusiko ditugu “inoiz baino armatuago” kalean.

## Sindikatuena eskaera

Segurtasuna eta armen arteko eztabaidaren aurrean gaude, beraz. Eibarko agintariek argi izan dute udaltzainek gaur egunera arte izan dituzten tresnak “nahikoak” direla euren betebeharrak betetzeko, beti ere Ertzaintzaren koordinazioak ongi funtzionatzen badu. Armen erabilerak ez duela zertan segurtasuna handituko uste izan dute. Badirudi, dena dela, belaunaldi berriek Udaltzaingoaren “polizia” ikuspegia barneratua dutela. Udaltzain izan nahi duenak zazpi hilabeteko ikastaroa egin behar du Udaltzaingoaren Akademiaren eta Arkauteko Ertzaintzaren instalazioetan. Besteak beste, armen erabilerarekin lotutako ikastaroak egiten dituzte eta Ertzaintzak hartzen duen prestakuntza “ia berbera” hartzen du gaur egun Udaltzaingoak. Ernetik ere diotenez, “txapela daraman eta on hutsa den udaltzainaren kontzeptua burutik kendu behar dugu. Udaltzaingoa polizia integrala izatea nahi badugu, armak behar ditu”.

EAEko Polizia Legean izaera zibileko “institutu armatua” da Udaltzaingoa eta gorputz hori izateko eskubidea dute bost mila biztanle edo hortik gora dituzten udalerrriak. Legeak zehazten duenez, bere zereginen artean daude administrazio polizia modura aritzea, ordenantzak, bandoak, dekretuak eta abar betearaztea, udalerriko zirkulazioa zaintzea eta baita herritarren segurtasuna ere.

2019ko ekainean eman zion Eusko Legebiltzarrak behin betiko onespina Polizia Legearen erreformari, EAJren, PSE-EEren eta PPren babesarekin. Bertan zehazten denez, “bide publikoko segurtasunerako zerbitzuak eta segurtasun eta zaintzakoak armekin emango dira”. Hala ere, pistolen erabilera mugatzeko aukera aitortzen die



Herriko udaltzainek formakuntza-saioekin amaituko dute maiatzaren erdialdean.

dekretuak udalei. Esaterako, udal barruan edo eskolako eremuan ari direnean ez dute armarik eraman-go; segurtasun operazioetan, berriz, alkateak erabaki dezake arma beharrezkoa den edo ez.

### Guztiak joango dira pistolekin

Javier Ziaran Eibarko udaltzainburuak logikotzat jo du epaia. “Badihardugu guztia prestatzen, baina maiatzaren 1ean guztiak ezingo dira pistolarekin atera, badirelako oraindik formakuntza amaitu ez dutenak; azken horiek maiatzaren erdirako izango dira prest”. 44 udal-

tzain daude gaur egun Eibarren eta guztiak kaleratuko dira pistolarekin hemendik aurrera. Euretako laurdena dira Eibarkoak, “azken urte hauetan dozena bat kide jubilatuta baitira, asko herrikoak”. Azken erabakiaren inguruan udaltzainek iritzi ezberdinak dituztela dio, “beterranoie, esaterako, orain artekoa aldatzea dakarrelako, baina guztien erantzukizuna da horri aurre egitea”. Gipuzkoan, 38 udalerrietatik, bakarrik Donostia, Irun, Errenteria eta Andoaingoek eramatzen dituzte armak. Ziaranek gogoratzen duenez, “Arrasaten eta Zarautzen ere hemen sortutako eztabaidekin ibili dira”.

Jon Iraola alkateak ere bere presuntasuna erakutsi du epaiak agindutakoa betetzeko orduan, “nahiz eta bizi dugun Eibar segurua izanik, aldaketarik egitea beharrezkotzat ez genuen ikusi”. Udalak armak iaz erosi zituen eta, eurak gordetzeko eta, hainbat berritasun ere egin dituzte udaltzaingoaren lokaletan. “100.000 euro inguru inbertitu dugu horretan”, dio Iraolak, mantentimendurako kostua “esanguratsua ez dela” ghitzeko.

**>>> Sindikatuek pistola eramatea eskatu zutenetik lau urteko prozesuak ekarri gaitu egungo egoera berrira**

# Aurten, 1.500 aitorpen baino gehiago euskaraz

Errenta Aitorpena egiteko sasoi betean gaude eta aurten ere euskaraz egiteko kanpaina abiatu du Eibarren Akebai plataformak. 2017az geroztik gero eta eibartar gehiagok egin dute aitorpena euskaraz egiteko hautua eta aurten 1.500eko langa gainditu nahi da (iaz 1.494 lagunek egin zuten euskaraz, egin zirenen %11).



**H**erritarren hizkuntza ohiturak aldatzea du helburu Eibarren Akebaik, besteak beste, eta, horretarako, egunerokoan ohikoak diren ekintzetan euskararen erabilera bultzatu nahi du. Errenta Aitorpenaren kasuan, urtean behin egiten da, baina erakunde publikoekin dugun harremanaren erakusle da eta erakundeekin euskaraz egitea bultzatu nahi da 'Ogasunarekin euskaraz' bezalako kanpainekin.

Baina herritarrek zer diote? Kanpainarekin bat egiten dute? Nolakoak dira euren hizkuntza ohiturak? Errenta Aitorpena euskaraz egiten dute? Hori jakiteko lau eibartar elkarrizketatu ditugu.

Malen Illarramendi autonomia izan da bi urtetan zehar eta, orduan, aholkularitza-zerbitzuen bitartez kudeatzen zuen Errenta Aitorpena. "Gainera, aldi berean hainbat enpresatarako lanak egiten nituen eta nahiko zaila egiten zitzaidan tramiteak nire kabuz antolatzea", diosku. Aurten, oster, ez da autonomia eta lehen aldiz bere kabuz egin du Aitorpena. Autolikidazio proposamena jaso zuen, baina datu asko falta zirela konturatu ondoren, gertuko aditu baten laguntza jaso behar izan du "aitorpena behar bezala aurkezteko".

Malenek ez du Ogasunaren bulegora joan behar izan eta, ondorioz, ez du langileekin aurrez aurreko traturik izan, baina Internet bitartez egindako tramite



Ezkerreko argazkian, Malen Illarramendi. Goian, Odei Jainaga.

guztiak euskaraz egin dituela diosku. “Denok daukagu eskubidea tramite horiek nahi dugun hizkuntzan egin ahal izateko, bai online bidez denean eta baita aurrez aurrekoa denean ere”, azpimarratzen du.

Bere ustez aurten euskarazko Errenta Aitorpenen 1.500eko langa gaindituko dugu Eibarren, baina, publizitate kanpaina ona egin arren, uste du zerbait gehiago behar dela hizkuntza ohiturak aldatzeko. “Egunero koan euskaraz hitz egiten ez duenak eta ez duenak euskara bere sentitzen nekez egingo du aitorpena euskaraz. Uste dut hizkuntza aldaketa horrek Errenta Aitorpena baino haratago doan ohitura aldaketa bat dakarrela lehendabizi”, bere iritziz.

### **Erronkak gainditzen ohituta**

Odei Jainagak erronka ugari gainditu ditu bere kirol-ibilbidean eta, esperientziatik berba eginda, Malenek bezala berak uste du aurten gaindituko dugula 1.500eko langa. “Ziur gaindituko dugula! Herriari erronka botaz gero, ziur nago gaindituko dugula”, bere ustez.


Orain arte gurasoekin batera egin izan du Errenta Aitorpena, baina aurten berea egitea tokatzen zaio. “Kontu hau nahiko arrotza da niretzat, baina txanda hartu eta Ogasunaren bulegora joan beharko naiz”, aitortzen digu.

Horrelako tramite ofizialak gazteleraz egiteko ohitura du Odeik. “Ez dakit ohituragatik edo zergatik den, eskaintzen dizkizuten orriak gazteleraz daudelako edo langileak orokorrean gazteleraz zuzentzen zaizkizulako, baina horrela da”, diosku. “Gainera, gerta daiteke erabiltzen diren berba tekniko batzuk inoiz ez ditugula entzun euskaraz”, gehitzen du.

**"Denok daukagu eskubidea tramite horiek nahi dugun hizkuntzan egin ahal izateko"**



## "Administrazioari elebitasuna eskatu diogu beti, euskaraz egin ahal izatea, eta aprobetxatu behar dugu"



Goiko argazkian, Aitziber Uriak. Behean, Ander Urkia,

Aurten, ostera, ez du gazteleraz egingo. Orain arte ez zuen ezagutzen Ogasunarekin Euskaraz kanpaina, baina bat egingo du eta aitortpena euskaraz egingo duela aitortu digu. "1.500eko langa gainditzeko falta diren aitortpenetako bat nirea izango da", diosku umoretsu.

### Euskaraz egiteko aukera indartu

Aitziber Uriak euskaraz egin du Errenta Aitorpena azken urteotan. "Orain dela bi edo hiru urte autolikidazio proposamena iritsi zitzaidan eta onartu egin nuen. Dena dela, bertara joan behar izan naizenean beti egin dut euskaraz langileekin", esan digunez. "Azkenean, administrazioari elebitasuna eskatu diogu beti, euskaraz egin ahal izatea, eta aprobetxatu beharra dugula uste dut. Ez bakarrik lortutakoari eusteko, baita gehiago indartzeko ere", gehitzen du.

Aitziberrek aitortzen du zailtasun batzuk aurkitzen dituela Errenta Aitorpena euskaraz egiteko orduan. "Izan ere, nahiko berba teknikoak erabiltzen dira; baina, behin jakinda zein kontzeptu diren, beti errepikatzen dira eta ez dago zalantza handirik. Gainera, batzuetan gazteleraz korapilatsuagoa izaten da kontzeptuen esanahia jakitea", diosku.

### Gazteek euskaraz

Ander Urkiak gurasoekin batera egin du Errenta Aitorpena ia beti, baina orain dela bi urte autolikidazio proposamena iritsi zitzaion eta iaz bulegora joan behar izan zen aitortpen mekanizatua egitera. "Izan ere, base-rria erosi nuen eta dokumentu gehiago eraman behar nituen", azaldu digunez.

Iazko kasuan Ogasuneko langile batek egin zizkion tramiteak eta, esan digunez, tratua gazteleraz eskaini zion. "Nik euskaraz egiten nion eta berak gazteleraz. Eta gero, horrelakoetan, gaztelerara jotzen duzu ia beti", zehaztu digu. "Egia esan, terminologia hori ez dut ez gazteleraz ez euskaraz ulertzen", dio barrez.

Anderrek uste du gero eta gehiago egingo dela Errenta Aitorpena euskaraz. "Gazteok euskaraz egin ditugu ikasketak (nahiz eta herrian gazteleraz asko egiten den) eta horrelakoak euskaraz egitera ohituagoak gaude", bere ustez. "Ni neu, horrelakoetan (eta orokorrean) hobeto moldatzen naiz euskaraz gazteleraz baino", gehitzen du.



NAGORE FERNANDEZ

## Armagiñak bakarrik ez

Hiri armagiña bezala da ezaguna Eibar. Nik ez ditut armak bereziki gustuko, beldurra eragiten baitidate babes sentipena baino gehiago. Onartzen dut arma batzuk benetako artelanak direla, baina beti iruditu zait harro sentitzeko arrazoi hobea dela krisiari aurre egiteko armagin eibartarrek gauzatutako eraldaketa: bizikletak, josteko makinak edo bulego-tresnak egiten hasi zirenekoa. Hori, eta gure kaleei nortasun berezia emate(n) dieten eraikin industrial horiek guztiak ere, noski, tamalez gero eta gutxiago diren arren.

Ba, igande honetatik aurrera armagiña izateaz gain, arma-eramailea ere izango da gure hiria, Udaltzaingoa medio. Justiziak hala derrigortzen omen du, disuasio-neurri modura eta polizien zein biktimen segurtasuna bermatzeko. Ondo erabilita horrela izango da, ez diot nik ezetz... Baina albisteei so egitea besterik ez dago armek, edo gizaki armatuek hain zuzen, sarraski itzela ere sor dezaketela ikusteko; hirien, herrialdeen, bizitzen suntsipen osoa.

Eibar ere suntsituta geratu zen duela 85 urte, bonbardaketen ostean. Horrelaxe galdu ziren orduko eraikin eta kaleak, antzinako Eibar eta bere morfologia zena atzean utziz eta orain denari hasiera emanez. Hainbat jarduera antolatuta dira egunotan hura gogoratzeko, herri bezala gaur garena ulertzeko ez baitugu izan ginena ahaztu behar.

Baina ez da asteburua arma zahar eta berrien eraginpean bakarrik geratuko ba, eta nik ahaztu nahi ez dudana Dantzaren Nazioarteko Eguna da: gaur ospatzen da, apirilaren 29an. Talde ezberdinen emanaldiak egongo dira hainbat tokitan, herrian dagoen aniztasuna erakutsiz eta kaleak dantzaz betez. Senti gaitezten harro honetaz ere, beraz: Eibar herri armagiña baita, baina *dantzagiña* ere bai.

**“Igande honetatik aurrera, armagiña izateaz gain, arma-eramailea ere izango da gure hiria”**

# “Dislexiak ikasketa prozesuari eragiten dio, idazteari eta irakurtzeari”

CARMEN ANDERSON • Gipuzkoako Dislexia Elkarte kidea



Carmen Anderson Dislegiko (Gipuzkoako Dislexia Elkarte) kidea da, eta martxoan Elgoibarren izan zen dislexiari buruz hitz egiten, Debabarreneko Dislexia Taldea aurkezteko ekitaldian. Gipuzkoan sortu den eskualde mailako lehen ordezkari da hau, eta nagusiki Elgoibarren lan egingo badute ere, atek zabalik dituzte bailarako gainerako herrietzat ere.

AINHOA ANDONEGI (DKT)

## **Dislegiko (Gipuzkoako Dislexia Elkarte) sortzailetako bat zara. Zerk eraman zintuen elkarte sortzera?**

Dislexia duten bi seme ditut, eta haiekin izandako esperientziek bultzatuta, nire egoera berean zeuden beste guraso batzuekin jarri nintzen harremanetan. Nire esperientziak eta beraienak partekatzen hasi ginen, eta horrek eraman gintuen Gipuzkoako Dislexia Elkarte (Dislegi) sortzera. Ni Zeelanda Berrikoa naiz, baina 22 urte daramatzat Euskal Herrian, eta gaur egun Donostian bizi naiz. Hori dela eta, elkartearen egoitza nagusia Donostian daukagu, baina saiatzen gara Gipuzkoako eskualde guztietara iristen. Orain Elgoibarren sortu dute talde bat Debabarrenean dislexia duten pertsonen laguntzeko eta haien familiak hezteko, ikastetxeekin elkarlanean jarduteko eta azken batean, dislexia eza-gutzero emateko. Gipuzkoan sortu den eskualde mailako lehen ordezkari da, baina espero dugu azkena ez izatea. Gu denok boluntarioak gara eta zaila egiten zaigu probintzia osora iristea; beraz, horrelako ordezkariak oso garrantzitsuak dira guretzat.

## **Talde horrekin elkarlanean, hain zuzen, dislexiari buruzko hitzaldia eman zenuen Elgoibarren. Zer da dislexia?**

Hizkuntza prozesatzeko garunak daukan zailtasuna da, eta idazteko zein irakurtzeko gaitasunari eragiten dio. Etimologikoki hizkuntzaren zailtasuna esan nahi

du, eta gaur egun irakurtzean ager daitekeen arazotzat hartzen da, baina ez dauka arrazoi intelektual, kultural edota emozionalekin inongo erlaziorik. Ez zaio interes edo motibazio faltari lotu behar, ezta adimen urritasunari ere. Argi utzi nahi dut ikasketa prozesuari eragiten dion nahasmendua dela dislexia, baina ez dela gaixotasun bat.

## **Zerk eragiten du dislexia?**

Genetikak zerikusia dauka eta, horregatik, elkartera etortzen zaizkigun kideei lehenengo galdetzen dieguna zera da: ea familiar aurrekaririk baduten. Eta gehienetan egoten dira aurrekariak, baina askotan diagnostikatu gabeak. Askok esaten digute bere senideren batek ikasteko arazoak zituela, oso nota txarrak ateratzen zituela, baina oso azkarra zela. Argi utzi nahi dut dislexiak ez daukala adimenarekin zerikusirik. Dislexia duten ume asko oso argiak dira, bizkorrak eta irakaslearen galderak berehala erantzuten dituzten horietakoak, ahozko hizkuntza prozesatzeko arazorik ez dutelako. Irakurtzean eta idaztean agertzen dira arazoak. Normalean, dislexia dutenei asko kostatzen zaie irakurtzen ikastea, ez dituzte kontzeptuak ondo prozesatzen, kaligrafia txarra izaten dute, ortografia arazoak... Kontzientzia fonologikoa apur bat murriztuta izaten dute pertsona hauek eta horrek sortzen ditu arazoak, baina bakoitzak bere zailtasunak ditu eta ez



die denei modu berean eragiten. Batzuek azkarrago irakurtzen dute besteek baino, kontzeptuak hobeto barneratzen dituzte; beste batzuek azkar irakurtzen dute, baina ez dute ezer ulertzen...

### **Zein adinetan agertzen da?**

Haurtzaroan agertu daitezke seinaleak. Esaterako, normalean, beranduago hasten dira hitz egiten, ez dituzte soinuak ondo ahoskatzen, eta silabak jan edo gehitzen dituzte hitzetan... Gauzak izendatzea ere kostatzen zaie, hau da, zerbait deskribatzerakoan hitz zuzena burmuinetik ahora eramatea kostatzen zaie. Gero irakurtzen eta idazten hasten direnean, seinale horiek areagotu egiten dira: motel irakurtzen dute, atzamarrarekin markatzen dute irakurri beharreko letra edo silaba bakoitza, irakurritakoa ez dute barneratzen... Egia da hitz egiten, idazten edo irakurtzen hasten direnean horrelakoak oso ohikoak direla edozein umerengan, baina horrek ez du esan nahi denek dislexia dutenik. Askotan seinale horiek normalizat jotzen ditugu eta oharkabean pasatzen zaizkigu, normala delako irakurtzen, idazten edo hitz egiten ikasteko prozesuan zailtasunak agertzea; denek ez dute dena lehenengoan ikasten.



## **Debabarreneko Dislexia Taldea**

Gipuzkoako Dislexia Elkartetik sortu dute Debabarreneko Dislexia Elkartea, zenbait familiak zituzten beharrei erantzuteko: “Ikusita hemen inguruan ez zegoela inolako talde edo orientazio zerbitzurik, Dislegiko ordezkariekin batu ginen gure beharrak azaltzeko eta, euren proiektua interesgarria iruditu zitzaigunez, aukera polita ikusi genuen Debabarrenean taldea sortzeko”. Gurasoak dira taldearen sortzaileak, eta hainbat egoeraren aurrean galduta ikusi dute euren burua, nora jo ez zekitelarik: “Egoera horretan dagoen jendeari laguntzea da gure helburua, hau da, dislexiari buruzko informazioa zabaltzea eta gure esperientziak partekatzea, horretarako beharra duen edonorekin”. Dislexia ezagutzera ematea da euren oinarrizko funtzioa. Izan ere, nahasmentu honen inguruan oraindik ezjakintasun handia dagoela uste dute. Familiak prestatu nahi dituzte, eta ikastetxeekin elkarlanean aritzeko asmoa ere badute, elkarlanean dislexiari ahalik eta zabalkunde handiena emateko. Elkartetik azaldu duten moduan, dislexia

duten pertsonen batez ere ikasketa garaian topatzen dituzte traba eta zailtasun handienak, eta sarritan ez da ulertzen zergatik dituzten zailtasunak irakurtzean, idaztean... “Baina, hala ere, pertsona azkar eta langileak dira, beste ikuspuntu bat dutenak, erresilientzia handikoak... eta, euren beharretara egokitutako laguntza txiki bat izanez gero, dir-dir egiten dutenak”. Hain zuzen ere, ikasketa prozesuan dauden gazte horien beharrak asetu nahi dituzte taldeko guraso hauek, gizarteak gazte horiek uler ditzan nahi dute, eta horretarako ezinbestekotzat jotzen dute informazioa zabaltzea. Era berean, gazte horientzako material egokia prestatzeko beharra ere ikusi dute.

Momentuz Elgoibarko kideak daude taldean baka- rrik, eta beraien lan esparrua ere Elgoibar izango da nagusiki, baina bailarako gainerako herrientzat ere zabalik dituzte ateak, eta beharra duen edonori laguntzeko prestutasuna erakutsi dute. Beraiekin harremanetan jartzeko dislegidebabarrena@ni.eus helbidera idatzi daiteke.



Elkarteak Elgoibarren egingo du lan batez ere, baina eskualdeko guztiek dituzte atek zabalik. AINHOOAANDONEGI

### **Zein da orduan dislexia detektatzeko modua?**

Irakaslea izaten da normalean jabetzen lehenengoa. Ordu asko ematen dituzte eskolan eta irakasleak jakiten du hoberen ume bakoitzak zertan daukan zailtasuna. 5-6 urteren bueltan detektatu daitezke dislexia. Ikastetxeek test batzuk dituzte umeei probak egiteko eta, diagnostiko zehatza egiteko balio ez badute ere, dislexia izateko arriskuez ohartarazteko balio dute. Eskolaren papera oso garrantzitsua da dislexia detektatzeko.

### **Zuzentzen al da dislexia?**

Landu egin daiteke, eta eskolaren, familiaren eta logopeda baten laguntzarekin esaterako, asko hobetzen da, baina dislexia ez da zuzentzen inoiz. Ikasi egiten da dislexiarekin bizitzen eta dislexiari izkin egiten. Trikimailuak ikasten dituzte dislexia dutenek eta horrela moldatzen dira ikasketa prozesuan, baina umetan dislexikoa dena nagusitzean ere halaxe izango da. Baina lanketa zehatz batzuk eginez dislexikoek ere ikasten dute ondo irakurtzen, kontzeptuak barneratzen, idazten... Umetan umeak esponjak direla esaten dugu, eta horrek esan nahi du beren burmuinak gauza berriak ikasteko gaitasun handia duela. Baina burmuinaren malgutasun hori 10 urtetik au-

rrera gutxitzen joaten da; horregatik, garrantzitsua da dislexiaz ahalik eta azkarren jabetzea. Zenbat eta lehenago hasi lanketa horrekin, lehenago ikasiko du irakurtzen, eta horrek ikasketa prozesua erraztuko dio umeari. Eskoletan Berritzegunetik egiten zaizkie umeei probak eta, bestela, alor pribatutik ere egiten dira probak. Oso garrantzitsua da eskoletan dislexia zer den jakitea eta bere ezaugarriak ezagutzea, ondo bideratu ahal izateko. Familak normalean ez du ulertzen bere seme edo alabak zergatik dituen hainbeste zailtasun ikaste prozesuan, eta eskolara jotzen du. Horregatik oinarrikoa da eskolaren papera.

### **Zenbat jenderi eragiten dio dislexiak?**

Azken ikerketen arabera, mundu mailako populazioaren %6-%15ari eragiten dio. Guk datua biribilduta ematen dugu, eta %10eko portzentajea erabiltzen dugu. Dislexia dutenek ahalegin handia egiten dute ikasteko, baina, hala ere, askotan emaitzak ez dira onak izaten eta horrek frustrazio handia eragiten die. Ahalik eta lasterren detektatzea inportantea da, zein egokitzapen behar dituzten jakiteko eta lanak horretara bideratzeko. Beraientzako material ego- karia prestatzeak asko laguntzen du: orri zuriak, letra beltza tamaina egokian...

# AUTOEN GEHIGARRIA

2022ko apirila

## Zer hartu behar dugu kontuan auto bat erostean?

Autorik egokiena aukeratzea ez da lan erraza izaten. Gastu handia da eta, beraz, premisa batzuk hartu behar dira kontuan ibilgailua aukeratu aurretik. Zalantzarik gabe, segurtasuna funtsezko faktorea izan behar da erabakiak hartzeko orduan.

Autoak egungo eta etorkizuneko beharrak bete behar ditu. Familia handitzea pentsatu baduzu, gomendagarriena ibilgailu handiagoa aukeratzea da. Banaketarako erabiliko bada, agian zuzenena furgoneta bat izango da. Lehenik eta behin, argi izan behar da zein ibilgailu mota den gure beharretara egokitzen dena.

Zalantzarik gabe, prezioa faktore erabakigarria izan daiteke. Aurrekontuaren barruan, emango



zaion erabilgarritasunera hobekien egokitzen den ibilgailua aukeratu behar da.

Prezio eta ibilgailu mota horren barruan, oso kontuan izan behar da segurtasuna. Aztertzen ari diren ibilgailuetatik seguruenak aukeratu

behar da. Aukera bat EuroNCAP probetan lortutako emaitzak egiaztatzea da eta, jakina, serietik datozen sistemak eta aukerakoak zeintzuk diren ikustea.

Erosi aurretik, ibilgailua probatzea da gomendagarriena. Ia kontzesionario eta saltzaile guztiek eskaintzen duten aukera da.

Kontuan izan behar da, halaber, gasolina, diesel, elektriko eta ibilgailu hibridoak nahiago den ala ez. Merkatuan dauden aukerak aztertu behar dira eta, jakina, aintzat hartu behar da zer zirkulazio-murrizketa dauden gehien zirkulatzeko den eremuan. Bestalde, ez dugu ahaztu behar ibilgailuak kutsatzeko duten ahalmenaren arabera sailkatuta daudela.



## ZURICH

**Lejardi S.L.** Aseguru Agentzia

Tel. 943 20 11 49 / Plaza Barria, 8 / Eibar



## LOURDES URZURIAGA

987 ZENBAKIDUN DELEGATUA

Sostoa, 1 - behea (EIBAR)

943 82 04 49

688 871 717

lurzuri@mapfre.com



## MAPFRE

teCuidamos

# Teknikerrek segurtasunez eta eraginkortasunez gidatzeko azken aurrerapenak eramango ditu *Go Mobility* azokara

Eibarren kokatuta dagoen TEKNIKER zentro teknologikoak elektromugikortasunari buruzko *Go Mobility* nazioarteko biltzarren parte hartzen dihardu egun hauean, MUBILEk antolatutako FICOBAA azoka-esparruan (Irun).

Teknikerrek adimen artifizialeko teknologia berritzailea eraman du azokara: gidatu bitartean nekea detektatzen duena. Halaber, motorretan eta inbertsore elektrikoetan eman dituen soluzioen erakusgaiak aurkeztu ditu.

"Automobil-sektorean, mugikortasun eraginkor eta jasangarriago baterantz jauzi egiteko benetako premia dago. Ibilgailuetarako osagaiak garatzen dituzten enpresa asko elektronika integratu nahian dabilta, e-mugikortasuneranzko lasterketan atzean gera ez daitezten. Bada, Teknikerrek enpresa

horiei lagundu diezaieke, automobilgintzarako garapen elektroniko txertatuen dugun eskarmentu handiarengatik", azaldu du Nerea Arandia Teknikerreko Elektronika Unitateko zuzendariak.

## Gidariaren nekea detektatzea

Teknikerrek *Go Mobility* 2022an aurkeztuko duen erakusgaietako bat gidariaren betazalaren egoera ezberdinak detektatzeko sistema berritzailea izango da, adimen artifizialeko teknologiak erabiltzen dituena. "Bergia denbora-tarte jakin batez itxita badago, sistemak alarma bat joko du, gidariari logura hauteman diola ohartarazteko eta, horrela, nekearen ondoriozko istripuak saihesteko", gaineratu du Arandiak.

Zehazki, Teknikerren erakusgaiak pantaila bat dauka, altuera

eroso batean kokatuta, interesa izan dezaketeneke emaitzak ikusi ahal izan ditzaten. Bestetik, begien kliska detektatzeko kamera bat eta pantailari nahiz adimen artifizialeko sistema txertatuari eusteko oinarri bat dauka.

## Motor eta inbertsore elektrikoak

Bestalde, zentro teknologikoak motor elektrikoaren eredu jasangarri eta eraginkorrago bat erakutsi du nazioarteko azokan. Zentroak berak garatu du oso-osorik, Weevil proiektu europarraren esparruan. Sistemak diseinu trinkoa dauka, eta osagai bakar batean integratzen ditu hainbat osagai, tamaina txikian. Horrek ibilgailuaren osagai-kopurua murrizten du eta, ondorioz, ibilgailuaren pisua txikiagoa da, barruan toki handiagoa edukitzearekin batera.

**GASOLEOEN BANAKETA**

20.000 L. / 2.000 L.

**kanto!**

Otaola etorbidea, 13-Bis  
Tinoa. 943 20 73 74 / 94 671 02 77

GAUEZ ZERBITZU AUTOMATIKOIA

**ARGABA  
GESTION, S.L.**

Auto eta karabanentzako  
**APARKALEKUA ALOKAGAI**  
Elbarrio erdigunean

Urtzaila, 1 (Aurrera eraikina)  
943 206 383 / 672 338 993

Konfidantzako  
zure konponketa lantegia,  
zentroan kokatuta.

**Talleres  
Caño**

943 53 08 70  
Uburxa 2 | Armagin 8

# Gasolinan aurrezteko moduak

Erabiltzaile garen aldetik, erregaia aurreztu dezakegu gidatzean trikimailu batzuk aplikatuz, markek iragartzen dutena baino kontsumozifra baxuagoetara iritsiz.

## Nola abiatu eta zirkulatzen hasi:

Funtsezkoa da motorra martxan jartzerakoan azeleragailua ez zapaltzea eta, zure autoak diesel motorra badu, segundo batzuk itxarotea zirkulatzen hasteko. Gogoratu lehen martxa hasierarako baino ez dela; beraz, aldatu bi segundora edo sei metro aurrera egin ondoren. Abiadura pixkanaka handitzen du eta bat-bateko azelerazioak saihesten ditu. 5 segundotan 20 kilometro orduko igotzeak gasolioa %11 aurreztea eragin dezake.

## Abiadura uniformeari eutsi:

Nola aurreztu gehiago gasolinan? Gidatzean arintasuna bilatuz eta ahal den neurrian beti abiadura berean joaten saiatuz. Saihestu azeleragailua asko frenatzea edo zapaltzea. Datu bat argigarria da: orduko 20 kilometrotik aurrera martxa txertatuta eta azeleratu gabe gidatzeak kontsumoa ia nulua izatea eragiten du; ralentian, berriz, 0,5 eta 0,7 litro erregai inguru gastatuko dituzu orduko.

## Freno-motorra erabili ahal duzun guztietan:

Hobe da azeleragailua askatzea abiadura murriztu behar du-



zunean freno gehiegi erabili baino. Gastua %2 murriztu dezakezu hori egiten ohituz gero. Horretarako, funtsezkoa da beti gomendatutako segurtasun-tartea errespetatzea.

## Motorra gehiegi iraultzea saihestu:

Autoaren osasun onari eta erregaia kontsumo egokiari eusteko, 1.500 biraketa inguru ibili behar dira, inoiz ez azpitik, gasolina-motorretan, eta 1.300 diesel-motorretan.

## Aire girotua behar bezala erabili:

Gomendagarriena da hirian leihatila irekitzea eta errepidean, abiadura handian, aire girotua erabiltzea eta kristalak erabat itxita eramatea. Bestela, ibilgailuaren aerodinamikari eragingo lioke, motorra gehiegi behartuko litzateke eta, beraz, kontsumoa handiagoa izango litzateke.

## AUTOA PARTEKATZEKO MODUAK

Autoa da Europan distantzia ertain eta luzeko bidaiak egiteko gehien erabiltzen den garraioa: ibilbide horien %75ean baino gehiagotan erabiltzen da. Hala ere, ibilgailu horien batez besteko okupazioa 1,9 lagunekoa da, 1,7koa Espainian.

Errealitate horren aurrean sortu zen **CARPOOLING** kontzeptua, gastuak partekatzearen truke beste pertsona batzuekin bidaiak egiteko elkarlaneko mugikortasun modu bat. Ibilgailua hainbat erabiltzaileartean partekatzea oso berritzailea ez bada ere, azpimarratzekoa da Blablacar bezalako plataformak agertu direla, lagun bila dabilzan gidariak eta garraioa behar duten erabiltzaileak harremanetan jartzea errazten dutenak. Internet bidez, plaza erreserbatu eta gidariaren informatu zaitezke, bidaiaren berarekin partekatu duten beste erabiltzaile batzuen iruzkinen bidez.

Bestalde, **CARSHARING** delakoa ere zabaltzen ari da. Hitzek hitz auto partekatu gisa itzul daitekeena. Zerbitzuaren oinarria da ibilgailu pribatuen flota bat eskaintzea plataforma batean izena emandako publikoari, libreki erabili ahal izan ditzaten, zerbitzua minutuka ordainduz (kasu gehienetan). Alokatzeko modu horretan autoak enpresa edo kooperatiba baten jabetzakoak dira eta, batez ere, ibilgailua orduka erabiltzeko erabiltzen dira.



**AUTO KONPONKETAK**  
**AURRERA**

- Mekanika - Elektrizitatea
- ITVrako errebisioak
- Frenoak - Amortiguazioa
- Mantentimendua - Erroberak

Urtzaile, z/g      Telefono eta Faxa: 943 20 80 65



**Matsaria, 2**  
**3 Pabilioia**  
**-Eibar-**

**Pintura (labean lehortua) Txapa**  
**Neumatikoak Mekanika**

943 208 502 [carrocerias\\_mak@hotmail.com](mailto:carrocerias_mak@hotmail.com) 699 203 791

# Beharginen borroka kalera ateratzeko deia sekula baino ozenagoa da aurten

Altxa, borroka, konponbidea... Horrelako berbak errepikatzen dituzte sindikatuek urtero, Maiatzaren Lehenaren atarian, beharginak mobilizatzeko. Borrokarako hamaika arrazoi dago eta: soldatak igotzeko, prekarietatearekin amaitzeko, berdintasun handiagoa izateko, ondasunak banatzea eskatzeko... Horiek eta gehiago eskatzeko eguna izango da domeka.

Informazio gehiago  
elkartearen webgunean:



**A**ste honetan Untzagan egindako agerraldian aurkeztu zituzten Maiatzaren Lehenerako antolatutako egitaraua LAB sindikatuko ordezkariak. Azken bi urteak pandemiak baldintzatuta igaro eta gero, aurten berriz ere kalean mobilizatzen deitu dituzte herritarrik, “Altxa! Egin dezagun posible. Zaintza lanak, enplegua, ondasuna banatu” goiburuari jarraituz. Sindikatu abertzaleak hainbat deialdi iragarri ditu Euskal Herriko hainbat hiritan, tartean Eibarren: domekan eskualde mailako manifestazioa abiatuko da Untzagatik, 12:00etan, eta amaitu eta jarraian ekitaldi politikoa egingo da. Ondo-

ren, 14:30ean, herri bazkaria egingo da (txartelak erosteko LAB-en egoitzetara jo behar da) eta, bazkalostea girotzeko, Hemen taldeak kontzertua emango du.

**Eredu ekonomiko eta sozial berria** Sindikatuko ordezkarien berbetan, “Maiatzaren Lehen honetan, LAB-etik enplegua eta zaintzak banatzeko eta aberastasuna birbanatzeko politketan egingo dugu azpimarra. Izan ere, banaketa hirukoitzaren alde egiten dugu, zaintza lanak, enplegua eta aberastasuna banatzearen alde”.

Nabarmendu dutenez, “gaur egungo egoera ez du pandemiak sortu, ezta Ukrainako gerrak ere”.





Eibarren bezala, Euskal Herri osoan zehar dozenatik gora mobilizazio antolatu ditu LAB sindikatuak. SILBIAHERNANDEZ

Sindikatuan argi daukate arazoa kapitalismoa eta bere politika neo-liberalak direla eta, konponbidea, berriz, eredu ekonomiko eta sozial berri batetik baino ez dela etorriko.

**Manifestazioak Euskadiko hiru hiriburuetan**

LAB-ekin batera Euskadiko gehiengo sindikala osatzen duten

ELA, CCOO Euskadiko Langile Komisioak eta UGT Euskadik, bestalde, EAE-ko hiru hiriburuetan eta Iruñean egingo diren manifestazioetan parte hartzera deitu dituzte herritarrak: Donostian, 12:00etan hasiko da, Alderdi Ederren; Bilbon, 11:30ean Jesusen Bihotzean; eta Gasteizen, 11:00etan Andra Mari Zurian.

**Eibarren, 12:00etan hasiko da LAB sindikatuak deitu duen manifestazioa, Ondoren herri bazkaria egingo da.**



## Zabalik dago familien ginkanarako izen-ematea

Astelehenean zabaldu zuen ...eta kitto! Euskara Elkarteak Familien arteko ginkanan izena emateko epea, eta maiatzaren 3ra arte luzatuko da. Maiatzaren 6an antolatuko du ekimen berria elkarteak: “Ekintza dibertigarria izango da. Senideekin edo lagunekin arratsalde dibertigarria pasatzeko aukera izango dute parte-hartzaileek”. Taldeak Untzagan elkartuko dira 17:15ean eta, behin azalpenak jaso eta gero, bertatik abiatuko dira “lehiaketako kideak”, 17:30ean. Hortik aurrera, ibilbide osoan jasotzen joango diren pista argitu beharko dituzte, helmugara iritsi arte. Amaieran, “taldekide guztientzako sariesz gain, sorpresa polita egongo da”, diote ...eta kitto!-tik. Izena taldean eman behar da, “familia berekoak, edo hainbat familia elkartuta edo kuadrillak izan daitezke, baina, asko jota, hamar kidez osatutako taldeak izan beharko dira eta, ume kopuruaren arabera, bi-lau heldu izango ditu talde bakoitzak”. Parte hartzeko ezinbestekoa da gutxienez taldeko helduetako batek ahozko zein idatzizko euskara ulertzea. Izena emateko ...eta kitto!-ra deitu (943200918) edo idatzi daiteke (elkartea@etakitto.eus), edo Astixaren bulegotik pasatu (09:00-13:00) edo bertara deitu (943206231).



## Tantanez Tantan ekintzarako tailer berezia

Datorren maiatzaren 21ean Tantanez Tantan euskararen aldeko olatua antolatuko dela-eta, ...eta kitto! Euskara Elkarteak “gantxillak” egiteko tailerra antolatu du maiatzaren 12rako. Fimoa erabiliz egingo dira gantxillak, lepoko moduan eramateko edo pin moduan. Bi saio egingo dira: bata, 6 urtetik gorako umeentzat (gurasoek la-

gunduta), 17:00etatik 18:00etara eta, bestea, helduentzat (12 urtetik gorakentzat), 18:15etik 19:30era. Tailerrak ...eta kitto! Euskara Elkartearen egoitzan egingo dira (Urkizu 11, solairuartea) eta doan izango dira, baina izena emateko telefonoz deitu (943200918) edo mezua idatzi beharko da elkartea@etakitto.eus helbidera.



## Bertol Arrieta Harixa Emoten

Euskarazko literatura tertulien ikasturteko azkenaurreko saioa izan da aste honetakoa; Bertol Arrietaren “Gezurra berdaderoa” liburua irakurri dute tertuliakideek eta lan horren inguruan jardun zuten idazle zarauztarrarekin batera. Hurrengo saioa, ikasturteko azkena, maiatzaren 31n izango da; Uxue Alberdiren “Dendaostekoak” liburua itxiko du ikasturtea.





# HEZKUNTZA ESKAITZA 2022/23

## ATE IREKIAK

MAIATZAK 5 eta 6

\* Eman izena web orrian

## AURREMATRIKULA

MAIATZAK 9tik 27ra

Informazio gehiago:

[www.meka-elgoibar.net](http://www.meka-elgoibar.net)

Meka Albitzari Eraikina

Albitzari politoia, 24  
20670-50049  
Elgoibar


Meka Etenario Eraikina

Amagatze kalea, 2  
20670-50049  
Elgoibar



Informazio gehiago: [www.meka-elgoibar.net](http://www.meka-elgoibar.net)  
Tel: 943 194 919

[www.meka-elgoibar.net](http://www.meka-elgoibar.net)



### GOI MAILAKO ZIKLOA

- ADMINISTRAZIO ETA FINANTZAK
- METAL ENJAINKUNTZA
- GARATZERAGIA
- GENERALEKO ENJAINKUNTZA
- HAUR HEZKUNTZA
- DEUTETIKA
- AUTOMATIZAZIOA

### ERDI MAILAKO ZIKLOA

- ADMINISTRAZIO KIBERNETIKA
- BILGAILUEN ETA BILGAILUEN ENJAINKUNTZA
- MENDIEN ENJAINKUNTZA
- PERFORAZIO ENJAINKUNTZA
- ENJAINKUNTZA ENJAINKUNTZA
- ENJAINKUNTZA ENJAINKUNTZA
- ENJAINKUNTZA ENJAINKUNTZA
- ENJAINKUNTZA ENJAINKUNTZA

### ESPEZIALIZAZIOA

- BILGAILU ENJAINKUNTZA ENJAINKUNTZA

# DANTZA ASTEBURUA

*Eibar eta ingurukoentzat dantza asteburua antolatuta dugu.*

*Zapatuan hainbat estiloko dantza klaseak eskainiz, dantza munduko profesionalen eskutik!!*

*Domekan etxeko txikien banda izango da, Mugisormen tailer bereziarekin.*

**AUKERA PAREGABEA BENETAN!!!**



@kaxagunea



**Maiatzak 7 (zapatua)**  
**EIBAR DANTZAN**  
10:00-13:00 / 16:00-20:00  
Lohitzuna, Anepe  
eta Leire Dallas (45 euro)  
Eva Sanchez Martz  
eta Amaia Elizaran (30 euro)  
Biak batuta (60 euro)

**Maiatzak 8 (domeka)**  
**MUGISORMEN**  
10:00-11:00  
2017, 2018 eta 2019an  
jaiotakoak (20 euro)



Gaur arratsaldean, Dantzaren Nazioarteko Eguna dela ospatzeko, Eibar dantzaleku bihurtuko dute KAXA, Kezka Dantza Taldea, NeleDantza, Biraka, Ballet Eibarres eta Os Galeicos taldeek. Ekitaldiak Urkizun, Errebelen, Urutzagan eta Amalain ogingo dituzte.



LANBIDE  
HEZIKETA  
FORMAZION  
PROFESIONAL

# heziketa zikloak

## Erdi eta Goi mailako zikloak

### Espezializazioak

Elgoibar  
Maiatzak 7  
11:00etan  
Informazio saioa  
Hartu lekua!



## Bi eibartar Gipuzkoako hiru-txirlo txapelketaren gorenean

Eibartarren arteko lehia, Iñaki Gojenolak aurrea hartu dio Oier Ugarteburu taldekideari Gipuzkoako 51. hiru-txirlo txapelketan. Biek ihes egin dute sailkapen nagusian eta bost eta lau txirloren aldearekin atzetik dituzte Floreagako Gorka Etxaniz eta Asola Berriko Garikoitz Rodriguez. Taldeka Floreaga da lehenengoa sailkapenean, San Miguel eta San Joxeperen aurretik. Emakumezkoetan San Migueleko

Aitziber Olaizolak agintzen du, hiru txirloko aldearekin. San Pedron jokaturako txapelketako laugarren jaurtialdian, 55 bolaritik inor ez zen pasa hiru txirlo botatzetik. Unai Loiolak irabazitako tiraldian, beste hainbatek amaitu zuten berarekin berdinduta, tartean Asola Berriko Gojenolak eta Sergio Rodriguezek. Bihar jokaturako da bosgarren tiraldia Lasturreko bolatokian, ohiko ordutegian hasita (17:00).



## Astelena frontoiak gaur eta domekan izango ditu pilota jaialdiak

Domekan jokaturako den maila profesionalekoan, gainera, lehen mailako buruz buruko ligaxkako Altuna eta Ezkurdiaren arteko norgehiagoka izango da jaialdiko nagusia. Aurretik eta ondoren binakako beste bi jokaturako dira: hasteko, Irribarria/Oier Etxebarria vs Pello Etxeberria/Martija, eta amaitzeko, Victor/Arbizu vs Zabala/Erostarbe.

Afizionatuen mailako gaur arratsaldeko jaialdiko partidu nagusian, Ander Agirresarobe Iker Narvaizaren tokia hartuko du (azken honek eskua minduta du) Zuloaga oñatiarrari aurre egiteko lau eta erdiaren barruko Gipuzkoako Txapelketaren barruan. 18:15ean hasiko den jaialdian aurretik Pilota Eskolako lagunarteko beste bi partidu izango dira.

## Arrateko talde nagusiek garaipenekin dihardute prestatzen igoera promozioak

Azeleragailutik oina altxatu barik jarraitzen dute Arrate Eibar Esku-baloiko bi talde nagusiek, garaipen bidetik aldendu gabe. Emakumezkoen taldeak Eharialdeari 23-26 irabazi zion Ligaren azken jardunaldian, beste bi puntu bereganatuz bere bigarren postua sendotzeko. Eta gizonezkoen taldeak garaipen argiagoa oraindik eskuratu zuen Barakaldon, etxeko taldearen aurrean 28-39 nagusituta. 11 goleko

alde hori atsedenaldirako lortuta zuten eibartarrek eta bigarren zatian ondo eutsi zioten abantaila horri. Zuloaga pibotak 14 gol sartu zituen, taldearen lan bikaina borobilduz. Azken hauen kasuan hiru jardunaldi falta zaizkie Liga amaitzeko. Azpimarratzekoa da nesken zein mutilen taldeak atzetik datozen jubenil mailako jokalariei eskaintzen ari zaizkien aukera guztiak.



## Jokin Garciari omenaldia Unben

Unben aurreko asteburuan jokatuak Ohorezko B Mailako ligako azken jardunaldian, Gaston Ibarbururen mutilek 17-18 galdu zuten Uribealdearekin azken uneetan. Azken emaitza horrek mesede egin zien talde biei: eibartarrek sailkapeneko bigarren postuari eusten zioten bitartean, bizkaitarrek garaipen horrekin jaitsiera postuetatik ihes egin zuten. Partidua galdu arren, jai-giroa bizi izan zen Unben eta, partidua amaituta, talde eibartarrari



hainbeste eman dion Jokin Garciari meretzitako omenaldia jaso zuen.

## Eibar FT-k zaletuen bultzada eskertuko du asteburuko partiduetan

Eibar FT-ko lehen taldeek gero eta gertuago dute zirt edo zart egiteko ordua, liga amaiera ate joka da goen honetan. Horrela, 2. Mailan jokatzen duen Garitanoren taldeak Zaragoza hartuko du Ipuruan bihar arratsaldean, 18:15ean hasiko den neurketan. Igoera zuzena hiru talderen kontua da honezkero (Almeria, Valladolid eta Eibar bera) eta hor bik bakarrik izango dute tokia. Jortdi Ferronek gidatzen duen Iberdrola 1. Mailako Eibar FT-k, bestalde, etzi goizean, 11:30ean hasita, Villarreal hartuko du Unben. Mailari eusteko azken aukeretako bat eskainiko die eibartarrei partidua irabazteak.

### Udako Campus-a

Eibar FT-k Udako Campus-ean parte hartzeko izen-ematea zabaldu du ekainaren 4ra arte. Campus hori hiru txandatan banatuko dute, ekainaren 27an hasi eta uztailearen 16an amaitzeko. Informazio gehiagorako: [campus@sdeibar.com](mailto:campus@sdeibar.com) eta 943 201 831 (1 luzapena).

## Urbateko lau jokalarik Euskadiko selekzioarekin izan dira Kroazian

Itsaso Molina jokalaririk, gainera, 15 urtetik azpiko Euskadiko selekzioarekin brontzeko domina irabazi zuen Kroaziako Dubrovniken jokatutako nazioarteko txapelketan. Europa osoko taldeek parte hartu zuten lehiaketan eibartarren eskual konbinatuak hiru partidua irabazi zituen, bat berdindu eta beste

bat galdu. Molinak, bere aldetik, lau gol sartu zituen. Dubrovniken izan ziren, baita, Jokin Laskurain, Telmo Malaga eta Eukene Kortabarrira ere. Mutilek konbinatuak hiru partidua irabazi zituen eta bi galdu, 17. postuan amaitzeko. Beste behin erakutsi duenez, Urbatek bereziki zaintzen du harrobia.



**Mahou**



**AMETSA**  
Gin Bar



**JAIA**

**Zuretzat ANTOLATUTAKO 6. / 7. URTEURRENA**

**apirilak 29**  
BARIXAKUA  
19:30  
Gorka Cuesta maisua urdaiatzpikoa moztzen

**apirilak 30**  
ZAPATUA  
19:30 Jota Bejarano  
23:00 DJ Juanma Cano

**maiatzak 1**  
DOMEKA  
13:30 Sofako musika



Antziñako pegora Arragueta kalia. PEDROARRIOLA

# “Uste duguna baino gauza gehiago egiten saiatu dira irudiz eta euskaraz XX. mendean zehar”

JOSU MARTINEZ • ‘Irudiz eta euskaraz’ ikerketa liburuaren egilea



‘Irudiz eta euskaraz. Gure hizkuntzaren zinema. Gure zinemaren hizkuntza’ ikerketa liburua argitaratu du Josu Martinezek. Orain arte ez da idatzi euskarazko zinemaren historiarik eta lan honek hutsune hori bete nahi du, zazpigarren arteak gure hizkuntzarekin izan dituen harremanak aztertuz.

**J**osu Martinezek Juan San Martin Beka irabazi zuen 2019an. Historia izan behar zen bekaren irabazleak landu behar zuen gaia eta euskaraz egindako zinemaren historia aztertzeko hautua egin zuen Martinezek. Orain, hiru urteko lanaren ondoren, UEUK argitaratu duen ‘Irudiz eta euskaraz’ liburua dakarkigu eta eguenean aurkeztuko du Coliseoan Begoña Del Teso kazetariarekin batera.

**Orain dela hiru urte egon ginen zurekin, Juan San Martin Beka irabazi zenuenean. Harrezkero, nolako bidea jarraitu duzu ikerketa-lana argitaratu arte?**

Tarteka ibili naiz ikerketa-lana egiten. Izan ere, ez zaude denbora osoan horrelako gauzak egiten, gaia batzuetan laga eta beste batzuetan hartu egiten duzu. Baina bide ona izan dela esango nuke.

**Lanak aurreikusten zenuen bidea jarraitu du?**

Lanean hasten zarenean espero ez zenituen gauzak aurkitzen dituzu. Bestela, den-dena aurretik jakingo banu, ez nuke lana egin behar izango.

**Eta zerbait berezia aurkitu duzu?**

Gauza asko aipatu nitzake, baina bai aurkitu ditut datu asko, egileak, pelikulak... orain arte aipatzen ez zirenak. Horrek pentsarazi dit beharbada are peliku-

la gehiago daudela oraindik ezagutzen ez ditugunak. Idatzizko iturrietara jo dut bereziki (aldizkarietara, egunkarietara...) eta aipatzen ez diren kontuen erreferentzia asko aurkitu ditut bertan. Guk uste duguna baino gauza gehiago egiten saiatu dira irudiz eta euskaraz XX. mendean zehar.

**Euskarazko zinemaren historia idazten den lehen aldia izan da. Horrek lana zaildu dizu?**


Zailtasunak baino, lehen iturrietara joan beharra izan dudala esango nuke. Izan ere, beste lan batzuk idatzita egongo balira, liburu horietara joan ahal izango nintzateke. Kasu honetan, badira liburu batzuk gai batzuk aipatzen dituztenak, baina ez zegoen nik aipatu nahi nuen guztia aipatzen zuenik. Lan egiteko beste modu bat izan da, esploratzaile baten lana.

**Egindako lana nola egituratu duzu liburuan?**

Historia liburua denez, kronologikoki, mende hasieratik mende amaierara arte.

**2019an esan zenigun euskarazko zinemaren hastapenak ikertu nahi zenituela. Zeintzuk dira hastapenak?**

Euskal zinema zer den, horren arabera azaldu daitetze hastapenak. Zinema Euskal Herrira heltzen den momentutik, euskaldunentzako zinema egiteko saiakerak egon ziren. Zinema mutuaren garaian,



Josu Martinezek 2019an irabazi zuen Juan San Martin beka. EKHI BELAR

intertituluak euskaraz dituen dokumental bat dago; gero, 30. hamarkadan soinudun zinema asmatzen denean, pelikula batzuetan euskarazko zati batzuk entzuten dira; 50. hamarkadatik aurrera euskara hutsez eginiko dokumentalak argitaratzen dira... Guzti horiek dira hastapenak. Azkenean, nik historiaurre moduko bat landu dut, edo Erdi Aro bat. Izan ere, euskarazko zinema, aski normalizatua eta pelikulak etengabe egiten, 2005. urtean hasi zen. Hau da, zinema Ipar Euskal Herrira heldu eta 101 urtera.

#### **Zinema modu ezberdinean garatu da Ipar Euskal Herrian eta Hego Euskal Herrian?**

Bai. Azkenean, estatu baten edo bestearen menpe egon, horrek eragiten du. Hego Euskal Herrian diktadura zegoen bitartean, euskaraz egiten ziren gauza bakarrak Ipar Euskal Herrian edo erbestean egiten ziren. Gero, autonomia estatutua egon den momentutik, gauza gehiago egin dira Hego Euskal Herrian, Ipar Euskal Herrian ez zegoelako instituzionalizaziorik. Orain, lehen instituzioak sortu dira Iparraldean eta badirudi badagoela gogoia euskal zinema egiteko.

### **“Euskarazko zinema, aski normalizatua eta pelikulak etengabe egiten, 2005. urtean hasi zen. Hau da, zinema Ipar Euskal Herrira heldu eta 101 urtera”**

Beti Frantziaren edo Espainiaren baldintzen menpe egon da egoera, eta orain mugaren bi aldeetan euskal zinema indartzeko aukera egon daiteke.

#### **Euskarazko zinematik berezko ezaugarriak ditu?**

Bai, euskaraz egiten dela. Bestela, ez dut sinesten euskal zinema eskola bat denik edo gauzak modu jakin batean kontatzen dituenik. Zorionez, genero, estilo, interes eta gai ezberdinak lantzen ditu euskal zinematik.

#### **Nolako eboluzioa izan du euskal zinematik?**

Sasoian sasoikoari lotuta egon da hori eta, gainera,

Liburua erosteko



euskarak berak eboluzioa izan du. Mendeetan zehar euskara tradizioari eta baserriari lotuta egon da, eta hasieran ematen zuen euskarazko pelikula bat egitekotan horrelako gaiak landu behar zirela. Bestetik, euskarazko zinema euskal prentsa bezalakoa da. Euskal prentsak ez du euskarari buruz bakarrik berba egiten, edozein gauzari buruz berba egiteko balio dezake. “Zer da egunkari bat? Mundu bat euskaraz”, zioen Berria egunkariak. Ba zinema berdin, edozein gairi buruz berba egiteko balio behar du. Euskara hizkuntza bat da, ez da besterik. Dena dela, garapen bat egon da euskarazko zineman. Hastapeanean gauza tradizionaleri buruz hitz egiten zen, eta gero normalizazioa etorri da, ulertu dugulako ez dela egin behar zinea euskararentzat, baizik eta euskalduna den zinema, ahalik eta hoberena.

### **Beste kultur adierazpenekin alderatuz (musika, literatura...), zinemak nolako pisua izan du euskal kulturaren?**

Izan lezakeena baino txikiagoa duela uste dut, baina ez dakit alderatzen. Zinema eta ikus-entzunezkoak izugarri kontsumitzen dira gaur egun eta, aldiz, euskaldungoak ez dakit bereziki kontsumitzen dituen euskarazko edukiak. Adibidez, euskarazko pelikula batek zineman 30.000 ikusle izan dezake eta 500.000 euskaldun gara. Beraz, non daude beste guztiak? Sinbolikoki pisu handia du, baina gero benetan beste zerbaite da.

### **Gaur egun nolako osasuna du euskal zinemak?**

Orain arte zero izan den zerbaitekin alderatuz gero, osasuna ona dela esango genuke. Lehen ez zegoelako ezer eta orain bai. Euskaraz bizitzeko nahia badaukagu, ostera, askoz ere gauza gehiago egin beharko lirateke euskarazko zineman. Horrek eskatzen duena da euskaldunak zinemara joatea, eta joango dira kalitatea ematen bazaie. Kalitatea lortzeko erakundeen babesa behar da.

### **Hori behar dugu euskarazko zinemaren historia idazten jarraitzeko?**

Ikus-entzunezkoetan (ez bakarrik zineman) lagun-



## **“Beti Frantziaren edo Espainiaren baldintzen menpe egon da egoera, eta orain mugaren bi aldeetan euskal zinema indartzeko aukera egon daiteke”**

tza publikoak erabat igo behar direla uste dut, argi eta garbi. Partida hor jokatzen da. Europako edozein herrialdetan askoz ere handiagoak dira ikus-entzunezkoek eskaintzen zaizkien laguntza publikoak (per capita), Euskal Herriaren edo Espainiarekin alderatuz gero. Beraz, ez naiz ezer berezirik eskatzen ari.

### **Maiatzaren 5ean, egunean, liburua aurkezten egongo zara Coliseoan. Nolako saioa izango da?**

Saioan Begoña Del Teso kazetariak hartuko du parte eta berarekin solasaldia egingo dut. Berak galderak egingo ditu, nik erantzun, eta solasaldia sortuko da bertan.



## 57. Euskal Jaia ospatuko da maiatzaren azken asteburuan

Eibarko Klub Deportiboaren eskutik, 57. Euskal Jaia ospatuko da maiatzaren azken asteburuan. Ohikoa denez, kontzertuak, ikastaroak, kale animazioa, dantza ekitaldiak, azoka, herri kirolak, bertsolariak, taloposua eta beste hainbat jarduera egingo dira maiatzaren 27tik 29ra bitartean. Aurretik, baina, girotzen joateko beste jarduera batzuk antolatu dituzte. Larrain dantza ikastaroa dagoeneko martxan dago, Arrate Kultur Elkartearen eskutik. Martitzeno egiten dute, Kulturko areto nagusian, 19:00etan, eta irekia da. Bestetik, Euskal Jaiko lehen pala txapelketa ere martxan dago, Klub Deportiboko pala komisiok antolatuta. Hamabi bikotek hartzen dute parte eta astero jokutzen dute, Astelena frontoian. Maiatzaren 6an, berriz, Oskar Alegriaren “Zumiriki” film dokumentala emango dute Coliseo antzokian, 19:00etan. Eta, beste batzuetan bezala, afaria zein bazkaria egongo direla aurreratu dute antolatzaileek: Biziminak-ek prestatuko du eta txartelak Klub Deportiboan ipiniko dituzte salgai maiatzaren 5etik 21era, 10/12 eurotan.

## Kulturarteko sukaldaritzak



Berdintasun Zerbitzua-Andretxearen eskutik, emakumeentzat kulturarteko sukaldaritzak saioa egingo da martitzenan, 17:30etik 19:30era, Portaleko sukaldarian. Antolatzaileen berbetan, “jatorri askotako topagunearen barruan, plater bat prestatuko dugu”. Informazio gehiagorako 685 759 091 telefono zenbakira deitu daiteke.



## Oskar Alegriaren “Zumiriki” pelikularen emanaldia

Maiatzaren 6an, barixakua, Oskar Alegriaren “Zumiriki” filma emango dute Coliseo antzokian, Eibarko Klub Deportiboak antolatzen duen Eibarko Euskal Jaiaren baitan. Nafarroako Pirinioetako basoetan isolatutako naufragor baten istorioa kontatzen du. Naturarekin eta haren haurtzaroarekin adiskidetzea du helburu, eta haren ardatz nagusia zain egotea da. Emanaldia 19:00etan hasiko da eta sarrera dohainik izango da, baina, hala ere, sartu ahal izateko txartela hartu behar da. Aldez aurretik eskuratzeko, Coliseoko txartegian edo Kutxabank-en dago horretarako aukera.



## Eibar BHI-k “Gezurrak” musikala aurkeztuko du

Eibar BHI ikastetxeko ikasleek ikuskizun musikala prestatzen dihardute eta jendearean aurkeztuko dute maiatzaren 4an, Coliseo antzokian, 19:00etatik aurrera. Lanaren izena “Gezurrak” da eta zuzendari lanetan Andrea Covadonga aktore eibatarra aritu da. Sarrerak Coliseoko ohiko salmentaren bidez eskuratu daitezke apirilaren 29tik aurrera, 5 eurotan. Guraso Elkartearen ekimenez sortu zen musikalaren proiektua. Ikastetxeak egitasmoa bere egin, eta musikala prestatzeko tailerra egiteko aukera eskaintzen die ikasleei Hauspoa programaren barruan.





## Imanol Jazz omenaldi kontzertua, bihar Coliseoan

Bihar 20:00etan, Coliseo antzokian, Imanol Larzabalen kantuekin gozatzeko aukera paregabea egongo da “Imanol Jazz” omenaldi-kontzertuan. Iñaki Salvadorek, hamaika kontzertutan Imanolekin batera arituzen piano-joleak, Karlos Giménez, kantautorearen piano-jole leialena izandakoarekin batera joko du, Petti eta Ainara Ortegaren ahotsekin lagunduta. Bi ahots, bi piano, lau mundu elkartuta, maitasunez, alaitasunez eta ilusioz aukeratutako erreperitorio bat berpizteko. Sarrerak 10 euro balio du (7 euro Coliseoaren Laguna txartelaren deskontuarekin).



## Gaztetxeak “Konponfest” hasiko du asteburuan

Apirilaren 30etik maiatzaren 27ra arte, Eibarko gaztetxeak hainbat ekintza jasoko ditu asteburuo “Konponfest” jaialdiaren barruan. Bihar, 20:30etik aurrera, Hellwatch, Mad Angels, Sala Goait, Broken Legacy eta Bombadil Sound System (Basque Reggae Kultur) taldeek kontzertua eskainiko dute. Hurrengo zapatuan, berriz, 10:00etan auzolana egingo dute eta 14:30ean bazkari musikatua hasiko da. Egitarau osoa ikusteko Eibarko Gaztetxearen sare sozialetan begiratu daiteke.



## Dantzaren Eguna dantzan ospatuko dute gaur

Dantzaren sustapenean diharduten elkarteek, taldeek eta eskolek elkarrekin ospatuko dute gaur Dantzaren Nazioarteko Eguna eta, horretarako, herriko kaleak hartuko dituzte. Arratsaldean zehar dantza ekitaldiak egongo dira Urkizun (17:30), Amañan (17:30), Errebalean (18:00) eta Untzagan (18:30), Kaxa, Biraka, Ballet Eibarres, Os Galaicos, NeleDantza eta Kezkaren eskutik. Eta, egunerako prestatu duten egitaraua biribiltzeko, Parrapas taldeak erromeria eskainiko du Untzagan, 20:15etik aurrera.

## Online Irakaskuntza Masterreko aurrematrikula zabalik

UEUko GOI institutuan, UPV/EHUrekin lankidetzan, euskaraz eta online eskaintzen dute Irakasleen Prestakuntzarako Unibertsitate Masterra. DBHko, Batxilergoko, Lanbide Heziketako eta hizkuntzen irakaskuntzako profesionalak prestatzea dute helburu. Matrikulazioa zabalik dago maiatzaren 31ra arte. Hiru espezialitate eskaintzen dira: Giza eta Gizarte Zientziak, Hizkuntza eta Literatura, eta Natur Zientziak eta Matematika. Informazio gehiago Interneten dago.

## Sanjuanetako kartel eta pegatina



Udalak San Juan jaietarako kartel lehiaketa deitu du. Epea maiatzaren 9ra bitartekoa da eta lanak elektronikoki (formulario bat betez) edo presentzialki aurkeztu ahal izango dira. Saria 600 eurokoa da. Horrekin batera, jaietan alkohol larregi edatearen kontrako pegatina aukeratzeko lehiaketa ere deitu dute. Bi deialdien inguruko informazio guztia Udalaren web orrian dago.



# Apirilak 29 / Maiatzak 4

## BARIXAKUA 29

### DANTZAREN NAZIOARTEKO EGUNA

**17:30** Kaxa, Kezka, Ballet Eibarres, Biraka eta Os Galaicos (Urkizu) eta Ballet Eibarres eta Kaxa (Amaña).

**18:00** NeleDantza eta Ballet Eibarres (Errebal).

**18:30** Kezka, Ballet Eibarres, Biraka eta Kaxa (Untzaga).

**20:15** Erromeria: Parrapas. Untzaga.

### URTEURREN JAIA

**19:30** Urdaiazpikoa mozten maisua den Gorka Cuesta. Ametsa taberna.

## ZAPATUA 30

### ZAPOREAK

**12:15** Kaleetan Kantuz.

**13:00** Txokolatearen historian zehar ibilbidea, Rafa Gorrotxategirekin.

**14:00** Maite Lorenzoren errezitaldia: "Alepo". Trio Medianoche.

**14:00/15:00** Tuper solidarioak banatzea (5 euro). Zozketa. Errebal Plaza.

### FERIA ROCIERA

**12:30** Hasiera. Dantzak (Eva eta Laune akademiak eta Aire Andaluz taldea). Fit Gipsy dantza (Eva akademia).

**15:00** Bazkaria.

**17:00** Moda desfilea (Alma Flamenka).

**18:00** Dantzaldia, La Piti-rekin.

**20:00** Giroitutako txikiteoa.

**22:00** Amaiera. Amaña.

### ZAPATUKO IPUINA

**18:00** "Amaiur" (Ameli eta Xirrikituen Jostune). Portalea.

### URTEURREN JAIA

**19:30** Jota Bejarano abeslaria.

**23:00** DJ Juanma Cano. Ametsa taberna.

## MUSIKA

**20:00** "Imanol Jazz". Iñaki Salvador, Karlos Gimenez, Petti eta Ainara Ortega. Coliseo.



## MUSIKA

**20:30** Hellwatch, Mad Angels, Sala Goait, Broken Legacy eta Bombadil Sound System taldeen kontzertua. Eibarko Gaztetxea.

## DOMEKA 1

### MAIATZAREN LEHENA

**12:00** Manifestazioa, Untzagatik. Ekitaldia, herri bazkaria (**14:30**) eta musika, Hemen taldearekin. Untzaga.

### URTEURREN JAIA

**19:00** "Música de sofá" taldearen kontzertua. Toribio Etxebarria.

## ASTELEHENA 2

### NAGUSIEN

### HAMABOSTALDIA

Juan Luis Mugerza Memoriala (Elgoibar-Eibar). Piskolabisa Azitaingo OLHUI-n.

### BIDE-FORUMA

**18:30** Emakumeen istorioak: Maria Callas. Dinamizatzailea: Patricia Perex Coto. Portalea.

## MARTITZENA 3

### IBILBIDE OSASUNTSUAK

**10:00** Herritar guztientzat zabalik, 5 kilometro inguruko ibilbidea, Minbiziaren Kontrako Elkartek antolatuta.

Elkartearen lokaletik abiatuta (Ardantza, 11).

### TAILERRA

**17:30/19:30**

Emakumeentzako kulturarteko sukaldaritza saioa. Portalea (sukaldea).

### SANTA KURUTZ

**17:30** anpaia.

**18:00** Meza.

Santa Kurutzeko ermita.

## EGUAZTENA 4

### IBILALDIA

**09:09** Orio-Agorregi-Iturran-Pagoeta. Bazkaria eraman. Trenaren irteera ordua Ardantzan (09:11ean Estazioan).

### NAGUSIEN

### HAMABOSTALDIA

**18:30** "Bizitza-ohitura osasungarriak" hitzaldia, José María Vaquero medikuaren eskutik. Untzaga jubilatutako etxea.

### MUSIKALA

**19:00** "Gezurrak", Eibar BHI-ko ikasleen musikala. Coliseo.

### DANBORRADA

**19:00** Umeen entsegua.

**20:00** Nagusiena. Beistegi eraikina (B. Sarasketa)..

## EGUENA 5

### HITZALDIA

**10:00/12:00** "Eibarko bonbardaketa 1937", Jesus Gutierrez historialariaren eskutik. Armeria Eskola.

### NAGUSIEN

### HAMABOSTALDIA

**18:30** "Adinekoen jarduerak fisikoa eta nutrizioa" hitzaldia, Onorio Martínez Eibar K.E-ko medikuaren eskutik. Beheko Tokia.

### AURKEZPENA

**19:00** "Irudiz eta euskaraz" lanaren aurkezpena. Josu Martínez eta Begoña del Teso. Coliseo.

## ERAKUSKETAK

**Apirilaren 30era arte:**

- **EIBARKO ARTISTEN**

**ELKARTEA**. (Portalea).

- **EIBAR BHI-ko artistak**.

(Portalea).

- **"HEMINGWAY &**

**EUSKAL HERRIA"** (Eibarko

Armagintzaren Museoa).

- **FERNANDO**

**RETOLAZAren argazkiak**

(Portalea taberna).

- **ARANTZA**

**CORTAJARENaren**

**argazkiak** (Depor taberna).

**Maiatzaren 1era arte:**

- **"XXIV. EGUEN ZURI"**

**argazki erakusketa**.

(Topalekua).

## Eskualdeko Agenda

## ERMUA

### ANTZERKIA

**29an (barixakua) / 20:30**

**Herriko Antzokia**

"Muerte de un viajante".

Okapi Producciones.

Imanol Arias.

Sarrera: 15 euro.

## ELGOIBAR

### KONTZERTUA

**30ean (zapatua) / 18:30**

**Maala parkea**

EME Eguna (Elgoibarko

Musikariaren Elkarte).

Bikustik, Elaners, Ellie

Jensen, Dani and The Sotos,

Jeizy is Tyros eta K'104.

## SORALUZE

### KONTZERTUA

**1ean (domeka) / 19:00**

**Herriko Antzokia**

Georges Brassens-en

omenez. Jon Basauri,

Domentx Uzin eta

Nagore Sanz-en eskutik.



**Jose Luis Etxeberria Agorreta**

2022/04/23

“Zein erraza izan den zu maitatzea, baina ezinezkoa egingo zaigu zu ahaztea”

ESKERRIK ASKO gurekin egon zareten guztioi.

- ETXEKOAK -



**Cecilia Baglietto Berraondo**

2022/03/04

“Zure alaitasuna eta maitasuna gure gogoan daude”

ESKERRIK ASKO gurekin egon zareten guztioi.

- ETXEKOAK -



**Rosa Martinez-Alcocer**

**1. URTEURRENA**  
2021/04/27

“Zure betiko irribarrea eta zure bihotz handia gurekin izango dira betirako”

- ZURE FAMILIA -



**Esteban Plazaola Zubizarreta**

**5. URTEURRENA**  
2017/05/03

“Bost urte joan zinela, baina gure artean eta gure bihotzetan zaude eta egongo zara beti”

- ZURE EMAZTEA ETA ALABAK -

URTEURREN MEZA maiatzaren 1ean (domeka), 11:00etan, AZKOITIKO Santa Maria la Real parrokian.



688 62 76 89

publizitatea@etakitto.eus



Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon behar da **...eta kitto!**-n. Zorion-agurrak **etakitto.eus** webgunean ere argitaratzeko aukera daukatzue.



Zorionak, **ANDONE** Agote, hillaren 14an 15 urte bete zenuzuen-eta. Famelixa guztiaren partez.



Zorionak, **NAIA** Mondragon, hillaren 14an 11 urte egin zenuzuen-eta. Musu haundi bat famelixa guztiaren partez.



Zorionak, **ANDER**, hillaren 27xan 5 urte bete zenuzuen-eta. Musu haundi bat famelixa guztiaren partez.



Zorionak, **NAIKE**, maiatzaren 2xan 3 urte beteko dozuz-eta. Musu haundi bat famelixa guztiaren eta, batez be, Lur, Oinatz eta Bernaten partez.



Zorionak, **MARTINA**!!, 26xan 4 urte bete dozuz-eta. Patxo haundi bat etxekuen eta, batez be, Luca, Sofia, Jon, Markel eta Unaxen partez.

\*\*\*  
**FUNEUSKADI**  
Funeraria Mugica

\*\*\*  
**FUNERARIA MUGICA**  
Funeraria

\*\*\*  
**TANATOSKO EIBAR**

\*\*\*  
**TANATOSKO EIBAR**

**24 orduko zerbitzu iraunkorra T. 943 201 951**  
[www.funeuskadi.com](http://www.funeuskadi.com)

<p><b>Eibar:</b> Otaola, 27</p> <p><b>Eibarke bulegoa:</b> Bidebarrieta, 20</p>	<p><b>Elgoibar:</b> Xaillon, s/n, SIGMA Industrialea (Olasoko hilerriaren ondoan)</p> <p><b>Ermuake bulegoa:</b> Marqués de Valdespina, 16</p>
---	--

Eibar · Elgoibar · Ermua · Bilibo · Barakaldo · Leioa · Getxo · Sestao · Portugalete · Santurtzi · Basauri · Galdakao

**ATHLETE FISIOTERAPIA ETA KIROL BERREGOKITZEA**

**ZERBITZU MEDIKOAK**

- OINARRIZKO MEDIUKIROL AZTERKETA
- ESFORTZU PROBA KLINIKOA
- ESFORTZU KIROL PROBA

Ordua hartzeko edo informazioa jasotzeko:  
[cvtisiologiadeportiva@gmail.com](mailto:cvtisiologiadeportiva@gmail.com)  
943 65 78 96

**Ind. Ojanguren, 1 - behea 6**

[www.publiresa.com](http://www.publiresa.com)

[publiresa@publiresa.com](mailto:publiresa@publiresa.com)

943 701 497 / 615 799 419

Armagin, 3-5 behea

merchandising

serigrafia

lanerako erropa

# Iragarki laburrak



688 62 76 89  
publizitatea@etakitto.eus

Atal honetako iragarkiak doan dira, etheen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako PREZIOAK, beti ere 4 ASTERAKO, honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. Iragarki guztiak [etakitto.eus](http://etakitto.eus) webgunean ere argitaratuko dira.

## 1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

## 2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

## 3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

## 4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

## 5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskerak
- 5.2. Eskaintzak

## 6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

## 1. ETXEBIZITZA

### 1.2. Errentan

- Zumaian 3 logelako alojamentu turistikoa asteka errentan eskaintzen da uda zein beste edozein urtarotan (gara-jea aukeran). 2019an guztiz erreformatua. Zumaia erdian dago, taberna girotik kanpo. 67822229.
- Zumaian 2 gelako etxe berria alokagai ekaina, uztaila, abuztua eta irailerako. 4 lagunentzat aproposa. Igogai-luarekin. Hondartzatik gertu. 722612247.

- Senar-emazteak 2 logelako pisua hartuko luke alokairuan. Erreferentziekin. 667060292.
- Zumaian uztaila eta abuztura-ko 3 logela dituen etxe bat topatzen dihardugu. 659261089.
- 3 logelako pisua hartuko nuke alokairuan. 631907807.
- Logela alokatzen diogu neska bati. Sukaldea eta egongela konpartitzeko aukera. 350 euro (gastu guztiak barne). 602051567.

## 3. LOKALAK

### 3.1. Salgai

- Trasteroak salgai Eibarko erdialdean. Sarbide onarekin. 2.000 eurotik hasita. 620099120.
- Txabola traspasoan Ipuru inguruan. Terrenoarekin. 649258913.

## 4. LANA

### 4.1. Lan bila

- Emakume arduratsua eskaintzen da etxeko lanak egiteko eta nagusiak zaintzeko. 692932984.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. 622233171.
- Neska eskaintzen da umeak eskolara eramane eta jasotzeko, eskolako zereginetan laguntzeko eta maskotak zaindu eta pasiatzeko. 602353585.
- Emakume arduratsua eskaintzen da nagusiak zaintzeko. 641942123.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. 641947065.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko (ziurtzariarekin), baita ospitalean ere, eta etxeko garbitzeko. 667060292.

- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Esperientzia handia. 680526228.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Habilitazio ziurtagiriarekin. 643622939.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. 631109062.
- Neska euskalduna eskaintzen da nagusiak eta gaixoak zaintzeko. Astegunetan arratsaldez eta asteburuetan egun osoz. 617571210.
- Emakumea eskaintzen da etxeko lanak egiteko eta nagusiak zaintzeko. 655991987.
- Emakumea eskaintzen da etxeko lanak egiteko eta nagusiak zaintzeko. 631787654.
- Gizonezkoa eskaintzen da garbiketarako egiteko, zaintzaile bezala eta eraikuntzan jarduteko. 641055198.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko eta nagusiak edo umeak zaintzeko. 624669425.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko eta emakumeak edo umeak zaintzeko. Ziurtagiri sozio-sanitarioa eta autoarekin. 612223075.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko (titulazioarekin) eta garbiketarako egiteko. 8 urteko esperientzia. 643574998.

### 4.2. Langile bila

- Saltzaila behar da Eibarko harategi batean. 647526441.
- Pertsona euskalduna behar da goizetan umea haurreskolara eramateko. 699495279.
- Higienistak eta laguntzailak behar dira Eibarko hortz-klinika batean. 621226244.
- Emakumea behar da astelehenera ostiralera (goizez 3 ordu

- eta arratsaldez beste 3) etxeko lanak egin eta emakume bat pasiatzeko. Gida-baimena izatea baloratuko da. 670410107.
- Kirol teknikaria behar da. Baldintzak: euskara jakitea eta aquabike, aquafitness eta igeriketa ikastaroak emateko ikasketak izatea. 688610620.
- Bidali curriculum: eibarigerixan@gmail.com
- Neska euskalduna behar da Eibarko hortz-klinika batean arreta zerbitzua eskaintzeko. Bidali curriculum: miren-txu2000@yahoo.es
- Zerbitzaria behar da tabernarako. Esperientziarekin. Jornada osorako kontratua. 627412431..

## 5. IRAKASKUNTZA

### 5.2. Eskaintzak

- DBHko, Batxilergoko eta Selektibitate prestatzeko klaseak ematen dira. Talde txikiak. 678937827.
- DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko Matematikak, Fisika, Kimika, etab.-eko klaseak ematen dira. Banakako klase egokituak edo 2-3 ikasleko taldekoak. Goizez ikasteko aukera. 677592509. Alberto.

## 6. DENETARIK

### 6.1. Salgai

- Menpekotasuna dutenak mugitzeko garabia, erroberadun-alkia eta taka-takak salgai. 661874548.

### 6.2. Eman

- Txakurkume ezin politagoak oparitzen dira. 688642761. Asier.
- Egongelako kristalezko mahaia oparitzen dut. Berriberria. 600750060.

# BISITA GIDATUAK

## Maiatzaren 2tik 6ra

GOI MAILAKO ZIKLOAK M2  
ERDI MAILAKO ZIKLOAK M3,4,5

Info gehiago gure  
webgune eta sare  
sozialetan



943 20 32 44  
eibar@armeriaeskola.eus  
www.armeriaeskola.eus



"Etorkizun baten oraina"




ArmeriaEskola<sup>x</sup>

# Grat Zinema

2022

Gnaturaldia  
Zinema

II. GIPIZKOAKO NATURA ETA  
INGURUMENEN ZINEMA ERAKUSTALDIA  
II MUESTRA DE CINE DE NATURALEZA Y  
MEDIO AMBIENTE DE GIPIZKOA



12 MAIATZA  
MAIATZ 19:00 P.L.T.E.  
COLISEO



19 MAIATZA  
MAIATZ 19:00 P.L.T.E.  
COLISEO

EGOITZA  
LAGUNTZAILEA



## SARRERAK DOAN

— plaza mugatuak —

Informazioa: [www.eibar.eus](http://www.eibar.eus)

Aurretik eskatu daitezke Gipuzkoa  
Ingurumenaren webgunean:  
[www.gipuzkoa.eus/eu/web/ingurumena/gnaturaldia/zinema](http://www.gipuzkoa.eus/eu/web/ingurumena/gnaturaldia/zinema)

Era berean, hartu daitezke:  
– Coliseo antzokiko leihatilan  
astelehen eta ostiraletan (17:30/19:30)



SARRERAK



GIPIZKOAKO INGURUMENA



Trienekens

GIPIZKOAKO KULTURA



 **Neinor** HOMES

ARRATE HOMES • EIBAR

## Etxebizitzak ERREBAL PLAZAREN ondoan

Gimnasioa  
Gourmet aretoa  
Garaje eta trastelekua



Neinor Store: Bidebarrieta, 6 - Eibar

ERAIKITZEN



900 11 00 22 • [neinorhomes.com](http://neinorhomes.com)

# ATE IREKIAK

 **UNI**  
EIBAR  
ERMUA

AURREZ AURREKOA

Data: MAIATZAK 4, 17:00etan  
GOI ETA ERDI MAILAKO ZIKLOAK (biak ordu berean)

ESKAINITZA

- MERKATARITZA JARDUERAK
- NAZIOARTEKO MERKATARITZA
- GARRAIO ETA LOGISTIKA
- ADMINISTRAZIO KUDEAKETA
- ADMINISTRAZIOA ETA FINANTZAK  
+ ADMINISTRAZIOA ETA FINANTZAK  
ESKAINITZA PARTZALA ARRATZALDEZ

- EGOKITZAPEN FISIKOA
- GIZARTE ETA KIROL IRAKASKUNTZA ETA ANIMAZIOA
- MIKROINFORMATIKA SISTEMAK ETA SAREAK
- PLATAFORMA ANITZEKO APLIKAZIOEN GARAPENA
- SAREKO INFORMATIKA SISTEMEN ADMINISTRAZIOA
- WEB APLIKAZIOEN GARAPENA
- ZIBERSEGURTASUNA INFORMAZIOAREN TEKNOLOGIEN INGURUNEETAN

ERKARRIARTEZ BARRIKARA  OIARRIARTEZ BARRIKARA  LERDUEZ BARRIKARA

Otaola Hiribidea, 29,  
20400 Eibar, Gipuzkoa  
943 89 92 11  
[itaskaintza@uni.eus](mailto:itaskaintza@uni.eus)  
[www.uni.eus](http://www.uni.eus) | [Facebook](https://www.facebook.com/uni.eus) | [Instagram](https://www.instagram.com/uni.eus)

 **UNI**  
EIBAR  
ERMUA



IKASTETXE  
PUBLIKO  
DOAKOA